

Informazioaren utopia

Kazetaritza sozialagorako proposamenak



 *hegoa*

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Informazioaren utopia

Kazetaritza sozialagorako proposamenak



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTETKO LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO · EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

*"Utopia jardun politikoko hitza da. Den-dena egin daitekeela, oraindik, eta beste era batera egin daitekeela esan nahi du. Beraz, jarduera teorikoa eta metodologikoa da: orainaren kritika eta eraldaketa-mugimendu historikoa. (...)
Mundua ulertu ez ezik, eraldatu ere egin behar da, eta gizarte-erlaketarako programa guztiak gaur egungo munduaren kritikan oinarritu behar dira."*

Jaume Martínez Bonafé



Bantaba

Giza garapenerako,
hezkuntza globalerako
eta herritarren partaidetzarako
baliabideak

Bantaba izeneko proiektuaren barruko argitalpena da honako hau. Zenbait baliabide eta jardueraren bitartez (webgunea, argitalpenak, jardunaldiak, ikastaroak...) Hegoak zera eskaini nahi du, heziketarako guneak, esperientzien elkartrukea, teknologia berrietan oinarritutako lanabesen bultzada, eta herritar sentsibilizazioaren alorreko irakasteko proposamen berrien aplikazioa.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXERDITZA ETA GIZARTE
GABETARAKO SALA
Euzko Jaurlaritzaren Salburuntzea
Gasteiz - Lanikidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Vicesecretaría de Bienestar Social
Dirección de Cooperación al Desarrollo



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

Enskutze eta Garapenerako
Lankidetzako Sala

Área de Mujer y
Cooperación al Desarrollo

Edizioa:



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
INSTITUTO DE INVESTIGACIÓN Y SERVICIOS SOCIALES E INSTITUCIÓN
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO - EUISIAL - HERRIKO UMERTSITATEA

Bilbao

Zubiria Etxea. UPV/EHU

Lehendakari Agirre etorbidea, 83 • 48015 Bilbo

Tfnoa.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

hegoa@bs.ehu.es

Vitoria-Gasteiz

Arabako Campus-eko Liburutegia. UPV/EHU

138 kutxatila - Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tfnoa. • Faxa: 945 01 42 87

hegoagasteiz@ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Lege Zenbakia: BI-1884-07

Euskerazko itzulpena: Elhuyar

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

ISBN: 978-84-89916-08-1



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Espainia

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/legalcode.eu>

Aurkibidea

Aurkezpena	7
Komunikazioko profesionalentzako gutun irekia <i>Isabel Suárez García</i>	9
Informazioa gerra-testuinguruetan <i>Víctor Pozas Pardo</i>	13
Emakumeak hedabideetan <i>Natividad Abril Vargas</i>	23
Komunikazioa eta Ingurumena <i>Iñaki Azkarraga Ripoll</i>	29
Immigrazioaren irudi mediatikoa <i>Peio Marín Aierbe</i>	37
Komunikazioa eta garapenerako lankidetzak <i>Javier Pagola Lorente</i>	43
Informazio-iturriak eta kazetaritzaren kalitatea <i>Txema Ramírez de la Piscina Martínez</i>	49
Informazio-enpresa eta balio profesionalak <i>Petxo Idoyaga Arrospide</i>	55
Webgrafia	65
Kolaboratzaileen aipamena	71

Aurkezpena

Informazioaren utopia *"Kazetaritza sozialagorako proposamenak"* Hegoako Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzako Sailaren ekimena da, eta Bantaba proiektuaren barruan dago (giza garapenerako baliabideak, hezkuntza globala eta hiritarren partaidetza). Proiektu honek komunikazio demokratikoa garatzea dauka helburu, ezinbestekoa baita gizartea eraldatzeko. Hori dela eta, utopian sinesten dugu, Galeanoren esanetan "aurrera egiten laguntzen digulako", itxuraz antzemanekin diren urratsak ematen. Izan ere, gaur egun lortezina izan arren, ez diogu inoiz eraldaketa horri uko egingo.

Proiektu honen bidez, komunikazioko profesionalen eta garapenerako lankidetzan esku hartzen duten eragileen arteko harremanak bideratu nahi ditugu berriro, jakin badakigulako gizarte-eragileen arteko sinergiak sortu behar direla ezinbestean eta elkarrekiko ezagutza eta ulermena handiagokak izan behar direla. Gai garrantzitsuenak aukeratu ditugu, gure ustez lehentasuna eman behar zaielako informazioak egiteko orduan: immigrazioaren irudi mediatikoa, emakumeak komunikabideetan, informazioa gerra-testuinguruetan eta ingurumenari zein garapenerako lankidetzari buruzko albisteen zabalkundea.

Agiria praktikoa da erabat, gure asmoa ez delako hitzaldi akademikoa egitea eta kode etikoa ezartzea. Izan ere, guri ez dagokigu halakorik egitea. Hori dela eta, zenbait dekalogoren inguruan egituratu dugu agiria, eta komunikabideek laguntza eta orientazio moduan erabili dezakete euren eguneroko zereginetan. Era berean, informazioaren errealitatearen ikuspegi orokorra osatzeko asmoz, leku berezia eskaini diegu informazio-iturriei eta kazetaritzari.

Honen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu agiria egin dutenei, euren lanari esker egin ahal izan dugu eta. Modu berean, miresmen handia diegu egunez egun nagusi den komunikazio-eredua aldatzen eta gizarte-gatazken azpian dauden erronka politikoak erakusten ahalegintzen diren guztiei.



Komunikazioko profesionalentzako gutun irekia

Isabel Suárez García

Gaur egungo komunikazio-sistema gizarte-sistemaren ardatz nagusia omen da, eta komunikabideak hiritarren oinarritzko erreferenteak dira, gaurkotasuna daukaten gaien inguruko interesa zehazteko orduan, gaien inguruko iritzia eratzeko orduan eta gizarte-balioak igortzeko orduan. Kazetaritzako enpresez eta komunikabideez hitz egitean, badirudi izaki abstraktuez ari garela eta ez dugula kontuan hartzen egunez egun euren informazio-zeregina garatzen duten kazetariak osatzen dituztela.

Euren autonomia profesionalari inposatutako mugetatik haratago, oso kontuan hartu behar dugu kazetaritzako profesionalak eragin handia dutela eta, horrez gain, erantzukizun handia daukatela komunikazio-prozesuan. Autonomiaren eta mugen arteko barrera oso "ahula" denez, gainditu egin daiteke.

Azken aldi honetan, tresna berriek komunikazioaren mundua jarri dute hankaz gora. Hala ere, kontraesana da informazioaren, aldea globalaren, teknologia berrien eta Interneten aroan gizarteak gero eta azaleko informazio gehiago jasotzea. Badirudi zaila dela ekuazioa ebaztea. Egia esan, sarriegitan, zenbat eta albiste gehiago jaso, orduan eta gutxiago ulertzen dugu benetan gertatzen dena. Tiraniaren, berehalakotasunaren eta irudiaren erresuman, *mediak* pasiboa omen den ikus-entzuleen arreta erakartzen dute, eguneko agendako segundo edo lerro eskasetan sartzen diren historien bitartez. Modu berean, elkarreraginerako ilusioa sortzen da hiritarren artean, eta, egia esan, partaidetzarako fikzioa baino ez da, beti ere sakelako telefonoen bidez aldeztu aurretik ordainduta bidali eta era guztietako telebista-saioretan agertzen diren mezuak herri-partaidetzaren aldeko apustu postmodernoa dela uste ez badugu.

Dramatismoa eta ikusgarritasuna egitateen tratamenduan beti agertzen diren bi osagai dira. Hori dela eta, informazioek testuingururik gabeko zatikako gaiak dituzte hizpide, epe ertain eta luzerako prozesuak erakutsi beharrean. Horiek horrela, ikus-entzuleen kopuruagatiko obsesioa ikuskizun murriztaile bihurtzen da; eta gaininformazioa, gezurrezko ugaritasun. Informazioko benetako protagonistak hondamendiz inguratutako testuinguru baztertzailetan daude kokatuta, eta, ikuspegi paternalistatik, subjektu pasiboak izango balira bezala aurkezten dituzte, analitikoak ez diren informazio orokortzaileen bitartez. Era berean, ez da informazio horien jarraipenik egiten.

Hiritarrei eguneroko gertaeren bertsio trinkoa eta zatikakoa eskaintzen diegunean, oso kontuan hartu behar dugu kazetariok munduaz idatzi eta

historia azaltzen dugula. "Informatzaile" moduan garatzen dugun lana ez da aseptikoa: iritzia sortzen dugu. Albiste bera aurkezteko, errealitate bera azaltzeko aukerak ugariak dira. Egitate berberak nola azaltzen ditugun kontuan hartuta, gatazka hondagarria prebenitu dezakegu eta gatazkako alderdien arteko zubiak ezarri ditzakegu edo tentsioak areagotu ditzakegu; gizarte-polarizazioa sustatu dezakezu edo elkarrizketarako giroa eta eremua bultzatu ditzakegu; talde bat estigmatizatu dezakegu edo gizarteratzeko irtenbideak proposatu ditzakegu; bidegabekeria eta desberdintasuna betikotu ditzakegu edo errotik desagerrarazi ditzakegu.

Ikustea eta entzutea ez da nahikoa, gertaerak beren benetako dimentsioan ulertzea eta aztertzea delako garrantzitsuena. Horretarako, premiazkoa da konprometitutako narratiba eta kazetaritzako azterketa kritikoa berreskuratzea, nahasmendua alde batera uztea eta konplexutasunari eustea, kasualitatetik kausalitatera igarotzea. Gogoan eduki behar dugu kazetaritza oso iraultzailea izan daitekeela, hizpide dituen egitateen benetako esanahia, mamia, inplikazioak eta ondorioak igortzen dituenen.

Jakin badakigu ekoizpen-ohitura mediatikoetan txertatutako osagai ugari daudela, komunikabideetan garatutako lan profesionala zailtzen dutela eta komunikatzaileen lan sortzailea zein ekimen pertsonala baldintzatzen dituztela. Horren ondorioz, informazioak hobeto aurreikusi daitezke eta mezuak nahiz edukiak are homogeneoagoak dira.

Kazetaritzaren testuinguruaren errealitatea oso kontuan hartu arren, premiazkoa da berari buruz seriotasunez hausnartzea. Gizarteratzeko eragile garrantzitsuak garenez, kazetaritzako profesionalok hiritarrak sentsibilizatzeko gaitasuna eta erantzukizuna daukagu, eta zeregin hori funtsezkoa da benetan demokratikoa den eredu sakontzeko. Jakin badakigu beste era bateko komunikazio-eredua sortu daitekeela. Kazetaritza gizarte-borrokarako arma izan daiteke eta, ez, merkatu askearen logika fundamentalistan txertatutako beste produktu bat.



Informazioa gerra-testuinguruetan

Victor Pozas Pardo

XXI. mendeko lehenengo urteetan, komunikaziorako eta propagandarako estrategia handiak hedatu dira, eta Bush administrazioak Ekialde Ertainean inposatutako gerrak beharrezkoak direla adierazi nahi digute, euren bidez mundua terrorismotik babestuko dutelakoan eta herrialde horietara demokrazia eramango dutelakoan. Justifikazio horiek zaharrak bezain erabiliak badira ere, Estatu Batuetako, Europako eta munduko beste leku batzuetako komunikabide askok gezur ofizialak zabaltzen eta sendotzen jarraitzen dute. Horiek horrela, milioika lagunek sinetsi egiten dituzte, jarduketa militarren aurka badaude ere.

Gerra batzuen eta besteen ontasunari eta premiari buruzko gaur egungo hitzaldiak agerian utzi nahian, lehenengo eta behin gain-gainetik gogoratuko dugu Irakeko gerraren manipulazioa XX. mendeko antzeko propaganda-eragiketen zerrenda luzean azaltzen dela. Gaur egun ere, gauza bera gertatzen ari da gure begien aurrean.

Lancet aldizkariaren arabera, Irakeko gerrak 650.000 hildako baino gehiago eragin ditu. Edonola ere, Estatu Batuetan irailaren 11n gertatutako atentatuen arnasapean, hasiera batean Irakeko inbasioa nahikoa zorte onez saldu ziguten terrorismoaren aurkako gerran irabazteko eta Saddam Husseinen tirania desagerrarazteko derrigorrezko erantzuna izango balitz bezala.

Bush administrazioak propagandarako eta harreman publikoetarako ekin-tza handia jarri zuen abian, eta Saddam Husseinen erregimena salatu zuen suntsipen handiko armak edukitzeagatik eta Al Qaedaekin zerikusia izateagatik. Horiek horrela, iritzi publikoa eta Estatu Batuetako komunikabide handi guztiak bere alde jarri ziren eta jarduketa militarra onartu zuten, Ipar Amerikako gobernuak bere salaketak egiaztatu ez bazituen ere. Munduaren gaineratikoko gobernu gehienek eta iritzi publikoak Washingtonen argudioak bete-betean eta alferrik gaitzetsi bazituzten ere, Europako gobernu batzuek (Blairren, Aznarren eta Berlusconiren aitzindaritzapean) Bush administrazioaren tesiei men egin zieten eta bete-betean babestu zuten inbasioa.

Horra hor komunikazio-kanpaina paregabearen arrakasta ezin hobea. Estatu Batuetako gobernuak esperientzia handia daukate arlo horretan. Hain zuzen ere, 1898ko Maine eta Creel Batzordea dira horren adierazgarri. Azken kasuan, esate baterako, Ipar Amerikako iritzi publikoa konbenztitu zuten Munduko Lehen Gerran esku hartzeko, Alemaniako "huno basa-

tiak" menderatzeko eta "mundua demokraziarentzako leku segurua izateko". Munduko Bigarren Gerran, Washingtonek eta Hollywoodek antzeko garaipena erdietsi zuten: Europako askatzaileen irudi distiratsua, nahiz eta askatasunak 30 urte geroago gurutzatu Pirinioak.

Vietnam, ordea, porrot itzela izan zen. Ipar Amerikako armadak argi eta garbi adierazi zuen gerrak irabazteko iritzi publikoa alde egon behar dela eta komunikabideak kontrolpean egon behar direla. Arenadako (1983ko) eta Panamako (1989ko) inbasioetan, komunikazio-estrategia berria ondo baino hobeto joan zen komunikabideetako zentsuraren bidez. Hala ere, 1991n iritzi publikoa Iraken aurkako gerran manipulatzeari lortu zuten garaipen ikusgarriena. Hill&Knowlton harreman publikoetarako agentziaren laguntzaz, gezurrezko lekuko baten akusazioak (Kuwaitek Washingtonen zeukan enbaxadorearen alaba zen) erabakigarriak izan ziren Kongresuak jarduketa militarrrerako baimena eman zezan. Izan ere, neskak esandakoaren arabera, Irakeko soldaduek odol hotzean erail zituzten Kuwaiteko 300 ume jaioberri baino gehiago euren inkubagailuetatik aterata.

Irailaren 11ko atentatuak mugarri historikoak dira, eta, egia esan, Estatu Batuetako gobernuari eskaini zioten gaur egungo historiaren narrazioa aldatzeko eta komunikazio-estrategia garatzeko aukera aparta. Horiek horrela, terrorismoaren aurkako gerraren amuaren bitartez, euren helburu nagusiaren berri eman zuten: argi eta garbi utzi nahi zuten nolako hegemonia zeukaten munduan, 2002ko irailean jakitera emandako Segurtasun Nazionalen Estrategian adierazten den bezala.

Testuinguru horretan, Ipar Amerikako iritzi publikoak eta komunikabideek Afganistango inbasioa txalokatu zuten, nahiz eta irailaren 11ko pilotu suizida bat bera ere afganistandarra ez izan. Munduaren gaineratikoa, ordea, emaitzak kontrajarriak izan ziren: agerikoa den Estatu Batuek aldebakarrak eta larderiatsuak zirela herrialde islamiarretan, bai eta Europako aliatu zahar batzuen artean ere. Dena dela, gobernuak eta komunikabide gehienek, mundu musulmanekoez ez, Afganistanen esku hartzea onartu zuten.

Gaur egun ere, gauza bera gertatzen da. Mundu guztiak Irakeko gerraren hasiera eragin zuten gezurren berri zehatz-mehatz badu ere, antzeko karpaina dago abian (ahots kritiko gutxi daude), eta nazioarteko iritzi publikoak prestatzea dauka helburu, Iranen aurkako "bidezko" jarduketa militarra onartu dezan.

Komunikabideek jarduketa militar hori eta beste edozein gerra onartu ez dezaten eta, halakorik gertatuz gero, informazioa objektiboa, serioa, argi-garria eta gerraren barrabaskeria geldiarazteko tresna izan dadin, honako hauxe proposatzen dugu:

1. Errealitatea mozorrotzen duen lengoaia ez erabiltzea

Hitzak ez dira ez xaloak ez neutralak. Armadetako komunikazio eta propaganda sailetan sortutako eufemismoak erabiltzen ditugun bakoitzean, gerra-gatazkaren inguruko engainua areagotzen dugu. Zergatik esaten dugu "kontratista zibilak" direla Bagdadeko kaleetan soldadu profesionalekin batera petrolio-putzuak babesten edo okupazio-indarren base militarrek eraikitzen lanean ari diren 40.000tik gora mertzenarioak? Zergatik errepikatzen dugu herrialde okupatu batean soldadu okupatzaileen aurkako erasoak atentatu terroristak direla eta aire-indarrak posizio zibilen aurka egindako bonbardaketak horixe bera direla eta, ez, atentatuak edo sarraskiak? Zergatik diogu Ipar Amerikako gudarosteek Irakeko gobernuari "subiranotasuna" itzuli diotela, operazio militarrei buruzko azken erabakia okupazio-indarretako jeneral batek hartzen badu? Lengoaia behar den moduan erabiltzen hasteko, gaur egungo defentsa-ministerioak gerra-ministerioak direla esan beharko genuke.

2. Gerraren testuingurua xehetasunez azaltzea

Horretarako, segurtasunari eta demokraziari buruzko adierazpen goratuen atzean ezkutatutako arrazoiak (ekonomikoak eta politikoak) ikertu, argitu eta erakutsi beharko genituzke. Gerra-eragileen benetako helburuak eta, ez, publizitate-xedeak zeintzuk diren azaldu beharko genuke. Era berean, jarduketa militarren berehalako eta ageriko ondorioak aurreikusi beharko liriateke, bai eta epe ertain eta luzerakoak ere, gorrotoa eta indarkeria areagotu egiten direlako. Komunikabide arduratsuentzat lehentasunezkoa izan beharko litzateke arrazoiak ulertzea, asmo aitortzeak salatzea eta gerraren ondorioei beldur izatea.

3. Armaden eta gobernuen iturrietan konfiantzarik ez izatea eta ahalik eta gutxien erabiltzea

"Gerraren artea engainuan datza", zioen Sun Tzuk orain dela 2.500 urte. Gero eta sarriagotan, komunikabideek gobernuen adierazpenak iturri

nagusitzat (eta, askotan, bakartzat) hartzen dituztenez, iritzi publikoa konbentzitzeko eta euren arazoak edo etsaienak ezkutatzeko jaulkitako gezurren eta esamesen megafono bihurtzen dira. Bestalde, benetako errealitatera, gerra-eremuetara hurbiltzen badira eta etxeak hondatuta eta senitartekoak hilda dituztenen edo zaurituta edo errefuxiatuta daudenen adierazpenak jasotzen badituzte, gatazkaren egoera benetakoagoa, biziagoa eta osoagoa eskainiko digute.

4. Biztanle zibilak ez ahaztea eta euren eguneroko historiak azaltzea

Horrela, mundu guztiak jakingo luke azken gerretako hildako gehienak biztanle zibilak direla. Irakeko gaur egungo gerran, 3.600 soldadu iparramerikar hil dira, 650.000 zibil irakiarren aldean, Lancet aldizkariaren arabera. Era berean, ezezagunei aurpegia eta izena jarriko genizkieke, eta indibidualizatu eta gizatiartu egingo genituzke, edozein gerratan antolatutako indarkeria handiaren bitartez euren salbazioa eta askatasuna lortu nahian egunero-egunero beste batzuek euren bizitzari eta etorkizunari buruzko erabakiak hartzen dituztenean.

5. Emakumeen eskubideen defentsa jarduketara militarra justifikatzeko aitzakia moduan ez erabiltzea

Afganistango gerran, Laura Bushek munduari jakinarazi zion "terrorismoaren aurkako borroka emakumeen eskubideen eta askatasunen aldeko borroka ere badela" eta Ipar Amerikako garaipen militarrek Afganistango emakumeak askatuko zituela. Komunikabideek mezua jaso eta zabaldu egin zuten, eta talibanen legeek emakumeen aurkako bereizkeria sustatzen zutela salatu zuten. Asetan zehar, Afganistango emakumeen irudi ugari agertu ziren egunkarietako lehen orrialdeetan eta telebistako zein irratiko albistegiak ireki zituzten. Hala ere, Afganistan okupatu eta gero, komunikabideak isildu egin ziren eta ez ziguten ezer esan emakume haien egoerari buruz, nahiz eta Nazioarteko Amnistiak eta antzeko erakundeek emakume horiek egunero-egunero indarkeria jasaten dutela eta giza eskubiderik ez dutela adierazi. Bestetik, Afganistango emakumeen erakundeak, RAWAK, komunikabideetan inolako oihartzunik lortu gabe salatzen du Afganistango leku askotako gobernuan emakumeen aurkako astakeria ugari egin dituzten zenbait buruzagi mujaidin daudela oraindik, bereizkeriaren aldeko legeak inposatu eta emakumeen askatasunak murriztu arren. Komuni-

kabideek beste era batera estaltzen ote dituzte Afganistango emakumeen benetako arazoak, Estatu Batuen laguntza jasotako eta Ronald Reaganek "freedom fightertzat" hartutako mujaidinak Sobietar Batasunaren aurka borrokatzen zirelako, talibanak Al Qaeda buruzagien anfitritioak ziren bitartean?

6. Gerraren aurka daudenei lekua ematea

Ez da gizalegekoa komunikabideek traidoretzat, aberriaren aurkarizat edo terrorismoaren konplizetzat hartzea euren herrialdeko gobernuak hasitako edo babestutako gerraren aurkako manifestaldiak egiten dituzten pertsonak. Era berean, ez da demokratikoa kalean egindako protestaldien berri ez ematea eta eztabaida-saioetan euren jarrera azaltzeko aukerarik ez ematea. Telebistako kate handiek, ordea, orduak eta orduak eskaintzen dizkiete "aditu" militarren azalpen gerrazale aspergarriei, euren gerra-jokoak azaltzen gozatzen duten bitartean eta milaka lagun hilko dituzten arma berrien mirari teknologikoak gorai patzen dituzten bitartean. Ulegarria denez, komunikabideek arma-enpresek ordaindutako publizitateko minutuetan edo ataletan jarri beharko lituzkete saio horiek.

7. Militarrek eta gobernuak informazioa zentzuratzeko egindako presioak salatzea

Komunikabideek ez dituzte inolaz ere onartu behar gobernuak agintarien presio sotilak, kazetariak herrialdeko interesen edo segurtasun nazionalaren izenean isildu daitezela. Horrela, irailaren 11ren ostean, Estatu Batuetako telebista-kateek Bin Ladenen bideorik ez ematea lortu zuen Condolezza Ricek. Beraz, hiritarren informazioarako eskubidea urratu zuen, eta, horrez gain, etsaien argudioak entzuteko eta euren kabuz epaitzeko aukera ukatu zien hiritarrei. Era berean, komunikabideek indarrez salatu beharko lituzkete komunikazioko profesionalen biziaren aurkako eta komunikabide menderagaitzen instalazioen aurkako muturreko zentsura-ekintza bortitzak. Horra hor Al Yasirari Kabulen eta Bagdaden gertatu zitzaiona. Kazetarien erailketa, Jose Cousorena, esaterako, metodo eredu garria da, gerraren berri independentziaz eman eta armadarekin "batera" ez doazen profesionalak isilarazteko.

8. Etsaiak gizatiartzea eta ez demonizatzea

Etsaia demonizatzea Munduko Lehen Gerran Arthur Ponsomby britainiarak salatutako propaganda-taktika zaharra da. Etsaiek inolako gizatasunik ez dutela adieraztea dauka helburu, gerra hobeto justifikatzeko eta iritzi publikoa aurka jartzeko. Komunikabideak tresna ezin hobea dira, etsaiaren benetako edo gezurrezko barrabaskeriak zabaltzeko, herri osoa agintarien erabakien errudun egiteko eta etorkizunean askatuko dituzten gorroto-ekaitzak sortzeko. Azken gatazketan, komunikabideek errealtatea errazten dute, eta egoera bakoitzerako Hitler egokiak bilatzen dituzte; esate baterako, Milosevic, Saddam Hussein edo Ahmadineyah. Euren krimenak edo krimenezko asmoak xehe-xehe azaltzen dituzte, baina bitxia bada ere, "guren" barrabaskeriak ezkutatu edo gutxitu egiten dituzte. Iranen eta Iraken arteko gerra hotzean, Saddamen gudarosteek arma kimikoen bitartez kurdoak sarraskitu zutenean, komunikabide guztietan agertu zen albistea, Estatu Batuetako gobernuarentzat interesgarria zelako. Irakeko Faluyako hirian 2004an eta 2005ean gertatutako hondamendia, ordea, ia-ia ez da mendebaldeko komunikabideetan agertu.

9. "Prestatutako" gertaerak agerian uztea eta gerraren izua erakustea

Gure gizartean, gerra ikuskizuna ere bada. Albistearen berehalakotasuna behar du, eta honako haxe da eduki bakarra: "hementxe gaude", "zuzenean ematen dugu haren berri". Unean bertako emaitza positiboak behar ditu. Hitzez hitz, gainera, kirol-lehiaketa izango balitz bezala aurkezten da, eta, bertan, gureak onak dira eta beti irabazten dute. Batzuetan, ikuskizun guztietan gertatzen den bezala, gerrak une gogoangarriak eta benetako edo asmatutako garaipenak behar ditu. Militarren komunikazio eta propaganda sailek badakite premia hori dagoela eta komunikabideak beitatzen dituzte, horretarako prestatutako gertaera distiratsuak eskainita. BBCK Linch tenienteari buruz asmatutako historiaren amarruaren berri eman zuen, hilabetez heroia izan ondoren. Hala ere, komunikabide espezializatuetan baino ez dute "prestatutako" ekitaldietako bat salatu, eta Bagdaden sartu ziren gudarosteetako operazio psikologikoen sailak jendaurrean onartu zuen arrakastatsua izan zela. Hain zuzen ere, Ipar Amerikako soldaduek eta blindatuek Saddamen estatua bota zutenean, komunikabide guztietan agertu zen tiranoaren aurkako herri-amorruaren adibide moduan.

Komunikabideek asmatutakoa zabaltzen dute eta gerrako izuak ezkutatzen dituzte. Europako komunikabide askotan eta Ipar Amerikako ia-ia guztietan, ez dira sarraskitutako gorputzen irudiak agertzen, jendearen sentsibilitateari minik ez egiteko edo (horixe diote) biktimen duintasuna errespetatzeko. Logika aurkakoa izan behar da: gerretako ondorio odoltsuak erakutsiz gero, iritzi publikoa iratzarri egingo litzateke eta geldiarazteko laguntza emango luke.

10. Militarrei eta gerra erabakitzen edo babesten duten politikariei galdera deserosoak egitea

Demokrazian, komunikabideek ez dute fede-egintzarik egin behar, gerra hastea erabakitzen edo babesten dutenek inolako probarik gabe akusazioak egiten dituztenean. Erabaki horien ondorioak milioika lagunentzat larriegiak direnez, ez dago agintari politiko eta militarren borondate onean eta adimenean konfiantza jartzerik. Komunikabideen betebeharrak profesionala eta morala da erantzun lausoak eta iheskorak kolokan jartzea, hutsaltasunak salatzea eta beste herrialde baten aurkako akusazio larrien frogak eskatzea. Bestalde, kazetariek eta komunikabideek ere agintarien gezurretan izango dute erantzukizuna. Irakeko inbasioa baino 48 ordu lehenago, prentsaurreko hizketaldian Bush presidenteari "Presidente jauna, une honetan zeure fedea duzu gidari?" galdetzea komunikabideen porrot profesionalaren adierazgarri da, eta argi eta garbi uzten du askotan "txakur zaindaria" izandako komunikabideak boterearen "menpeko txakur", gezurren konplize eta engainu bidez sustatutako gerren baterako erantzule bihurtu direla.



Emakumeak hedabideetan

Natividad Abril Vargas

Gero eta gehiago dira informazioa emateko orduan jarrera sexistak saihestu nahi dituzten kazetariak. Alabaina, egungo hedabideetan emakumeei eta gizonari ematen zaien informazio tratamendua aztertuz gero, ondorioak joan den mendeko 70eko hamarkadaren amaieran egindako lehen azterketen antzekoak direla ikusiko dugu.

Modu eskematikoan, eta kontrako bi muturretan arreta jarritz, ondorio hau atera dezakegu: politika, ekonomia eta kirolei buruzko albisteetan gizonak dira nagusi, eta emakumeak, berriz, gizonen, gerren eta mota guztietako hondamendien biktima gisa azaltzen dira irudikatuta.

Azken hogeita hamar urteotan errealitate sozialean aldaketa nabarmenak gertatu diren arren (besteak beste, emakumeak eremu publikora iristea), kazetaritzako diskurtsoaren gakoak eta ildo nagusiak ez dira apenas aldatu genero politikei dagokienez.

Hurrengo lerroetan, egungo egoera aldatzeko hainbat gogoeta eta proposamen aurkeztuko ditugu. Izan ere, ziur gaude beste ikuspuntu batetik informatzea posible dela; errealitate soziala modu zabalago batean ikusi eta aztertu dezakegula, informazio-errealitatea modu egokiagoan eraikitzeko. Kazetariak garen aldetik, baliteke etorkizun hurbilean dugun erronkarik interesgarrietako bat XXI. mendeko gizon eta emakumeei buruzko imaginario kolektiboa aldatzen laguntzea izatea. Horretarako, gomendio hauek egiten ditugu:

1. Eremu publikoko protagonistak diren emakumeei buruzko albisteak eta irudiak gehitu

Azterketa guztien arabera, eremu publikoan hainbat jardura egiten dituzten emakumeak hedabideen edukiek islatzen dituztenak baino askoz gehiago dira. Eremu publikoaren irudikapen maskulinoa aldatzeko moduan gaude, bai eta irudikapen hori errealitate sozialera egokitzeke ere.

2. Eremu pribatuko protagonistak diren gizonari buruzko albisteak eta irudiak gehitu

Aldaketa politikari eta neurri desberdinetan gertatzen ari den arren, gero eta gizon gehiagok hartzen dute eremu pribatuko zereginen ardura. Hedabideek errealitate konplexu horri buruzko albisteak eta iritziak zabaldu

behar dituzte, etorkizuneko belaunaldiei bi sexuek etxeko lanetan izan behar duten inplikazioari buruzko ikuspegi berri bat erakutsiz.

3. Termino generiko gisa maskulinoa erabiltzeari uko egin, hitz ez markatuak erabili, esaterako "pertsonak" edo "gizakiak", eta ahal denean, genero epizenoa erabili (herritarrak, hautesleria...)

Beste irtenbiderik ez dagoenean, bi sexuak aipa ditzakegu, gehiegizko erabilera saihestuz: Aita-amen elkarteak, neskak eta mutilak, etab.

Hizkuntzak berez ez dira sexistak; baldintza historikoen, oinordetzan hartutako arau zein ohituren eta gizarteetako ideologia nagusiaren emaitza edo ondorioa dira. Adibidez, XVIII. mendearen hasieran Modernitateko pentsaera ekarri zuen Ilustrazioak eremu pribatura zokoratu zituen emakumeak, eta desberdintasun biologikoak zirela eta, hiritar eskubidea ukatu zien. Emakumeek eremu publikoan garrantzirik ez zuten testuinguru historiko horretan sortu zen, hain zuzen ere, Hizkuntzaren Akademia, eta besteak beste, genero maskulinoak bi sexueta pertsonak barne hartzen zituela erabaki zuen. Honako galdera hau egin genezake: Egokia al da XXI. mendean genero maskulinoa emakume zein gizonei buruz hitz egiteko erabiltzen jarraitzea, duela ia hirurehun urte erabaki zuten bezala?

4. Emakumeen duintasunaren kontrako informazio tratamendu oro saihestu

Albisteetan behin eta berriz emakumeen gorputzari buruzko aipamenak egiten dira. Hedabideek beren itxura fisikoagatik emakumeak etengabe epaitzeko duten joerak oztopatu egiten du eremu publikoan emakumeek eduki behar duten aitorpena eta boterea.

5. Albisteetako irudietan emakumeak biktima gisa irudikatzeari uko egin

Gaur egun, hedabideek irudiei garrantzi handia ematen dieten arren -eguneroko prentsan, argazki kopurua gehitu beharrean haien tamaina eta kalitatea handitzeko joera dago-, idatzizko informazioaren osagarri huts gisa hartzen dira. Alderdi profesionalak alde batera utzita, ezer gutxi esaten da "irudi mediatiko" delakoek gure pentsaeran, eta, beraz, gure jarreretan, du-

ten eraginaz. Irudi horiek generoko rol konbentzionalenak errepikatzen dituzte etengabe: gizonak botere eremuetan, gerra egoeretan eta kirol lehiaketetan azaltzen dira; emakumeak, berriz, ikusezinak ez direnean, bik-tima edo objektu sexual gisa azaltzen dira irudikatuta. Kameraren objektibotik errealitate sozialari beste modu batera begiratzuz gero, sinbolikoki hain desberdina den informazio-errealitate hori aldatzen lagun dezakegu.

6. Berdintasuna bilatu iturri aditueta eta erreferentziazkoetan

Ireki dezagun gure agenda, eta azter ditzagun gure iturri eta kontaktu ohi-koenak. Horietatik zenbat dira emakumeak, eta zenbat gizonak? Zein arlo, gai edo espezializaziotan dihardute batzuek eta besteek? Bazter ditzagun estereotipoak, eta ahalegindu gaitezun gure iturriak aldatzen eta nahasten, ohiko rolen eraginpean erori gabe.

7. "Genero indarkeria", "indarkeria matxista" edo "gizonen emakumeenganako indarkeria" terminoak "etxeko indarkeria" terminoa baino egokiagoak dira

1996an, tratu txarrak Canal Sur telebista kateko plato batean salatu ondoren Ana Orantes bere senarrak hil zuenean, hedabideek 180 graduko bira eman zioten beren bikotekide edo bikotekide ohiek hildako emakumeen kasuen tratamenduari. "Kontu pertsonal" bat izatetik, "arazo sozial larria" izatera pasa zen informazio agendan. Orain, hedabideek egunero ematen digute emakumeen kontrako erasoei buruzko informazioa. Informazio horri ematen zaion tratamendua, ordea, beste kontu bat da. Hedabideetan sortutako lehenengo eztabaidagaietako bat zera izan zen: eraso horiei etxeko indarkeria, genero indarkeria, indarkeria matxista ala gizonen emakumeenganako indarkeria deitu behar zitzairen. Mugimendu feministaren eta genero indarkeriaren kontrako elkarteen ustez, "etxeko indarkeria" terminoa ez litzateke erabili behar, nahasketa sor dezakeelako. Gizonen emakumeenganako indarkeriak, indarkeria matxistak edo genero indarkeriak, jasotako hezkuntzaren eta mundu osoan zabaldua dauden desberdintasunen ondorioz gizonen emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria adierazten dute. Aldiz, etxeko indarkeriak familia bateko kideen artean sortutako indarkeria esan nahi du, generokoa barne.

8. Genero indarkeriari buruzko albisteak ezin dira poliziaren parteak, auzokoen testigantzak eta datu estatistikoak bakarrik erabiliz osatu

Albisteak beste ikuspegi batetik sortu behar ditugu, gizarteari mezu baikor bat emanez. Tratu txarrak gainditu dituzten emakumeei, emakume feministei edo hainbat arlotako adituei –psikologia, soziologia, medikuntza, zuzenbidea, etab.- elkarrizketak egin diezaiekegu, edota genero indarkeriaren aurka dauden taldeetako gizonen; indarkeriaren biktimak hartzen dituzten zentroi buruzko erreportajeak egin ditzakegu; eta oso beharrezkoa dena, iritzi artikulua modu sistematikoan argitara ditzakegu.

9. Hezur-haragizko pertsonak interesatzen zaizkigu. Informazioa pertsonalizatu eta gizartiaratu behar da

Hedabideek ematen dituzten albiste gehienak iturri instituzionaletatik datoz. Informazioaren muinean gizakia jartzeak albisteen ikuspegia eta interesa aldatuko lituzke. Emakume etorkinek, adibidez, egungo estereotipoak –biktima edo emagalduta bihurtzen dituztenak- baztertzen dituen informazio ikuspuntu berri bat behar dute, arreta beren bizitzaren konplexutasunean eta jaioterritik urrun eraiki dituzten proiektuetan jartzen duena.

10. Informazioan genero ikuspegia sartu

Informazioa berdintasuneko ikuspuntu batetik landu behar da, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun sozialetan jabetuz eta desberdintasun horiek agerian utziz. "Emakumeenak" omen diren gai jakinak interes orokorrez hartu beharko lirateke.



Komunikazioa eta Ingurumena

Iñaki Azkarraga Ripoll

Ezin da ukatu Ingurumena gaurkotasun handiko gaia dela, eta gero eta toki gehiago hartzen ari dela hedabideetan nahiz gure bizitzan. Ingurumenarekin zuzenean loturiko hainbat termino gure eguneroko lexikoan sartu dira: *klima aldaketa, birziklatzea, energia aurrezpena, Kyotoko protokoloa*, etab.

Alabaina, hitz horien esanahia asko alda daiteke erabiltzen diren testu-inguruaren arabera. Esate baterako, *Garapen iraunkorra* terminoari begiratu gero, kontzeptuaren "elastikotasuna" berehala antzeman daiteke; Administrazioak etengabe erabiltzen du (autobide berri baten eraikuntza *garapen iraunkorreko* estrategiarik hoberena da), eta baita Industriak ere (hazkunde ekonomikoa eta ingurumenarekiko errespetuaren batura *garapen iraunkorra* da), eta Ekologismoak ere bai (*garapen* kontsumista etengabeko eredu hau ez da *iraunkorra*)... Ez da atzoko kontua. Ereku bakoi-tzeko interesek kontzeptuak interpretatzeko modua erabakitzen dute.

Horregatik, hedabideen eta arlo horretako profesionalen eginkizuna funtsezkoa da, interes horiek agerian utzi eta jendeari "egia" erakusteko. Izan ere, jendeak gero eta mendekotasun handiagoa du tribuna mediatikoetatik igortzen diren iritzi eta gertakarietarako, hau da, gure garaiko katedra "iruzurti" horietarako. Wikipediak dioenez, Ingurumena *ez da soilik bizitza garatzen den espazioa; izaki bizidunak, objektuak, ura, lurra, airea eta horien arteko harremanak ere hartzen ditu barne, eta baita elementu ukiezinak ere, adibidez, kultura*. Beraz, egin dezagun lan gai izugarri garrantzitsu honi buruzko informazioa jasotzeko eskubidea babestuko duen kultura baten alde. Izan ere, azken 50 urteotan, ekosistemetan inoiz gertatu den aldaketarik handienaren lekuko izan gara.

Gogoetarako proposamen gisa, alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

1. Ingurumenarekin loturiko gaiek hedabideetan toki propioa izan dezaten lan egin

Hau da hedabideen inguruan sortzen den lehenengo gogoeta. Informazio material guztia ataletan dago sailkatuta: *Politika, Ekonomia, Kultura...*; eta Ingurumena zer? Ez al da ba gure ingurunea? Ez al gara ba jaiotzen, hazten, garatzen eta hiltzen, gainerako izaki bizidunak bezala? Badirudi Naturak interes gutxi pizten duela gure gizarte hiritar "aurreratu" hauetan. Garapen teknologikoko hainbat menderen ondorioz –batez ere, azken hamarkaden eraginez–, gizakia autosufizientea dela eta ezerk erasaten ez

duela sinestera iritsi da, eta ingurumenak ez dio axola, ez baitu uste erabilgarria edo beharrezkoa zaionik bere eguneroko bizitzan. Gaiari buruzko albiste urriak *Gizartea* edo *Tokikoak* ataletan azaldu ohi dira; hau da, sailkatu ezin den guztia jartzen den tokian. Aitzitik, Ingurumenari buruzko informazio guztia eguneroko eta berariazko atal batean sartuko balitz, ohi-tura mesedegarri bat sortuko genuke. Izan ere, pixkanaka, gizakiaren berezko ingurunea den aldetik Naturak duen garrantzia ulertu eta estimatuko genuke, denborarekin galtzen joan den ikuskera hori berreskuratuz.

2. Ingurumenari buruzko albisteak emateko erreportajea erabili

Orokorrean, Ingurumena hondamendi edo istripu bat gertatzen denean bihurtzen da albiste: sumendien erupzioak, uholdeak... Egoera ikusgarri horiek leku asko hartzen dute hedabideetan, baina gertakari albiste baten modura; gertakarietarako tratamendu laburra eta sentsazionalista ematen zaie, eta horrek kezka eta ikuspegi negatiboak eragiten ditu fenomeno natural jakin batekiko. Aldiz, erreportajea oso gutxitan erabiltzen da. Kazetaritza genero honek arreta handiagoa jartzen du xehetasunetan, hau da, gure ingurune naturalaren portaerari buruz gogoeta egitea ahalbidetzen diguten alderdie-tan. Izan ere, naturak erritmo propioa eta ñabardura asko ditu, eta presa nagusi den garai honetako gizaki hiritarrak ez gara horretaz konturatzen. Antza denez, gauza drastikoren bat gertatu behar da ingurumenari kasu egiteko. Lehenago emandako oharrek ez dute ezertarako balio, eta, are gutxiago, ingurumenaren "ohiko bilakaerari" begiratzeak. Baina Ingurumenak merezi ditu pare bat orri, edo kontakizun eta irudiez osaturiko minutu batzuk. Ildo horretatik, basa animaliei hedabideetan ematen zaien tratamendua oso adierazgarria da. Ez dute "interesik" beren ohiturak eta habitatak ulertzeko balio dezakeen erreportaje bat egiteko (zerbait positiboa), baina bai gure jarduerentzat arriskutsuak direnean: abeltzaintza (otsoa), kirola (marrazoak eta surfa), aisia (krokodilo baten eraso bat...). Orduan, konnotazio negatiboak dituen tratamendu mediatiko bat ematen zaie: "gizakientzat arriskutsua", "piztiak", "hil egin behar izan zuten"...

3. Naturaren irudi mehatzatzaila emateari uko egin

Aurreko puntuaren ildotik, ondorio hau ateratzen da: albisteak euskarri gisa gehiegi erabiltzeak, gertakari zehatzak eta, orokorrean, negatiboak –esaterako, hondamendi naturalak– behin eta berriz kontatzeko, Ingurumena milurtekoaren hasierako mendebaldeko bizimodu erosoarentzat

oztopoa dela sinestera eraman gaitzake; Ingurumena gure ekosistema artifizialaren areriotzat hartzera, Naturaren *baitan* beharrean, haren *kontra* garatzen den ingurune baten etsaitzat.

Adibidez, elurteei buruzko informazioa ematerakoan, zerbait adierazgarria aipatzeagatik, termino negatiboak erabili ohi dira, esaterako, "eguraldi txarra" edo "baldintza klimatiko gogorak". Baina, klima norentzat da txarra edo gogorra? Gure bizimoduarentzat, ala ura eta tenperatura aldaketak behar dituen gure ekosistemarentzat?

4. Etorkizunean ondorioak izango dituzten ingurumen arazoei buruz hitz egin

Masa komunikabideek asko hitz egiten dute orainaz, baina ezer gutxi etorkizunari buruz. Ingurumenaren gaiari dagokionez, etorkizuna funtsezkoa da. Naturak bere erritmoa du, eta aldaketak poliki-iki gertatzen dira hedabideak haietaz jabetzeko. Gainera, irudiak eta soinuak eskaintzen dituen gauza ikusgarriren bat gertatzen ez bada, oso litekeena da arazoari buruzko informazioz ez ematea "oraina" heldu arte, hau da, arazoa ia konponezina den arte. Adibide argigarri bat arrantzan eta arrain kontsumoan aurki dezakegu. Etorkizuneko belaunaldiak izango al dute Mediterraneoko atuna edo Kantauriko antxoa jateko aukerarik? Duela zenbait urte, galdera horrek ez zukeen zentzu gehiegi edukiko kazetaritzan, baina orain zer?

5. Egiturazko arazoei gertaera zehatzei baino garrantzi handiagoa eman

Lehenbailehen konpondu beharreko arazo bat: hedabideek uholde, lehorte, itsasikara eta abarri buruzko albiste kontaezinak ematen dituzte; horren ondorioz, Ingurumenari buruzko ikuspuntu sinplista bat bereganatu dugu, gizakia guztiz errugabetzat jotzen duen ikuspuntu bat. Dena gure begien aurrean gertatzen da, baina ez dugu geure burua erantzuletzat hartzen. Ez dugu gure bizimodua zertan aldatu, orain arte ongi funtzionatu duelako; eta arazoak sortzen badira –petrolioia amaitzea, adibidez-, Teknologia arduratuko da auto, hegazkin eta abarretaz gozatzen jarraitzea ahalbidetuko diguten beste erregai batzuk bilatzen –biodiesel, uranioa...-, arazoaren muinari heldu gabe, hau da, gizakiek eragiten duten desorekari eutsiz.

Hedabideek asko lagun lezakete, datuak emanaz gai honetan dugun erruaz jabetu gaitzen, eta gogoeta egin dezagun erabaki bat hartzeko: gauzak bere horretan utzi edo garaiz aldatu.

6. Naturaren eta Ekologiaren irudi errealagoa bultzatu

Telebistan edo prentsa idatzian fauna, flora edo paisaia naturalei buruzko informazioak izan duen gorakadak Naturarekiko sentimendu positiboa sorrarazi du, zalantzarik gabe. Hala ere, gizakia bere ingurune naturaletik kanpo dagoen izaki baten modura ikusten jarraitzen dugu, eta "postaleko ekologia" moduko bat da nagusi. Gure garaiko berezko ezaugarria da, eta, batez ere, Iparraldeko gizarteetakoa. Orokorrean, Natura aisiarako eremu idiliko bat da guretzat.

Alabaina, baliabide naturalen ustiakuntza tradizioaletik bizi diren pertsona asko daude. Horretan datza, hain zuzen ere, Ekologia: gizakiaren eta bere ingurunearen arteko elkarreaginaz. Aurrerapenaren (edo berau ulertzeko modu baten) izenean, gizakiok ekosistema baten zati garela ahaztu dugu, eta bere baliabideak modu orekatuan ustiatu behar direla, etorkizuneko belaunaldiak horren menpe daudelako.

7. Ingurumenarekin loturiko gaiei buruzko ikuspuntu kritikoa duten taldeei estaldura handiagoa eman

Lehen esan bezala, hedabideen bitartez, kultura instituzional eta industriaren interesen menpe dagoen Ingurumenaren ikuspegi bat transmititzen da. Ez da gehiegi egiten propaganda informazioarekin nahas ez dadin. Horrela, errepide eta trenbide azpiegitura berriak garapen iraunkorrerako gako gisa aurkezten dira, eta ideia edo erretorika "paternalista" nagusi horren aurka agertzen direnak, "erraldikaltzat" eta aurrerapenaren etsaitzat jotzen dituzte. Beraz, ahots alternatiboei lekua utzi behar diegu.

8. Naturaren arazoak Gizateriaren arazoak direlako ideia transmititu

Idea hori sarriago azpimarratu beharko litzateke hedabideetan. Lehen aipatutako ikuspegi nagusi horren ondorioz, ekologismoa animalia eta landareekin erlazioan ohi da, gizakien ongizatearekin loturik dagoen zerbaitekin beharrean. Hedabideetan oso gutxi hitz egiten da lurralde osotasunari, kultu-

rari edo bizimoduari dagokionez Hegoaldeko herrialdeek Iparraldeko industrien eskutik jasaten dituzten erasoez: petrolio erauzketak, gasbideak, itsasoko ekosistemen suntsitzea otarrainxka haztegiak eraikitzeke... Iparraldeko ikus-entzuleek Naturarekin lotzen dituzte arazo horiek. Alabaina, aipatutako industrien benetako tragediak eragiten dituzte berta-koengan: beren bizimodu tradizionala kaltetzen eta bizi baldintzak oker-zen dituzte, eta, ondorioz, exodo masiboak gertatzen dira.

9. Gauza "berdeei" buruz arinkeria ez hitz egin

Iparraldeko herrialdeetako bizitza maila erosoaren ondorioz, "homo consumer" a ingurumena errespetatzen duten produktuak erreklamatzeko ari da, eta industria horretaz jabeturik dago (armen industria ere, arma "berdeak" sortzeko ahaleginetan dabil). Enpresa handiak beren irudia garbitzen ari dira (logotipoetan kolore berdea sartu dute, iragarkietan paisaia naturalak azaltzen dira...). Horrek autoatseginezko sentsazio oso negatibo bat sorrarazten du ikusleengan, gauzak nahastu eta errealitatea ezkutatzeko duena. Izan ere, Iparraldeko herrialdeak Hegoaldekoen kontura bizi garela gogoratu behar da, eta herrialde horietako ingurumenaren egoera oso larria dela. Zerbait gaizki dabil. Makillaje hori kendu egin behar da, arazoaren benetako aurpegia ikusteko. Gutxiagorekin bizi beharko ginateke hobeto bizitzeko.

10. Mezu baikorra eta kontzientziatzailea transmititu

Bai, oraindik garaiz gabiltza gertatzeaz dagoen hondamendia saihesteko. Iritzi publikoak –dagoeneko ez da horretaz gehiegi hitz egiten– ingurumen arazoei buruzko egia jakitea merezi du, edo, gutxienez, egia horretara hurbiltzea. Kazetaritzak asko lagun dezake zeregin horretan, objektibotasuna, pluralismoa eta independentziaren balio zaharrak aldarrikatuz. Ez da ezer berririk egin behar. Gizartearekin hartutako konpromiso zaharra eguneratu baino ez.



Immigrazioaren irudi mediatikoa

Peio M. Aierbe

Gure gizartean, beste herrialde batzuetatik etorritako jendea dagoenez, ageri-agerikoa da gizarte-errealitate eta hiritartasun berriak sortu direla. Komunikabideek faktore hori eduki behar dute kontuan, hiritarrek gizarte zibil bakar eta bateratuan parte hartzen dutela eta bertako kideak direla adierazten duelako.

Biztanle guztiak normaltasunez gizarteratzeko, esparru publikoak onartu egin behar du "komunikatzeko eskubidea" eta guztientzako eskubide nahiz betebeharrak bateratuak sustatzen dituen "hiritartasun bereizia" daudela. Husbandek azaldutako "komunikatzeko eskubidearen" arabera, azpiegitura mediatiko egokia dago, ahotsak, nortasunak, interesak, ikuspegiak, eskubiak eta askatasunak askatasunez adierazi ahal izateko.

Nolanahi ere, badirudi nagusi den agenda politikoak ikuspegi etniko bakarra bultzatzean duela eta "gu-haiek" dialektika klasikoa berresten duela. Bertan, gainera, antipatia "sentitzen dugu" desberdintasunaren aurrean. Komunikabideek eguneroko errealitateari buruzko ikuspegi desitxuratua eskaintzen dute, eta etorkinak sistematik baztertzen dituzte: ez dute komunikabideetako profesional moduan parte hartzen, ez dute ahotsik informazio-iturri moduan eta ez da interesgarria ikus-entzule moduan dituzten premiei erantzutea. Bestalde, irudi patetiko, etsigarri eta kriminalizatuarekin lotzen ditugu, eurei buruz gaizki hitz egiten dugu eta gizarteratzeko prozesuetan aurrera egiteko aukera ukatzen diegu.

Kymlickak proposatutako "hiritartasun bereiziak" erkidegoen duintasuna, osotasuna eta berdintasuna onartu eta bermatu egiten ditu. Manuel Delgadoaren ustez, aniztasun kulturala "Kanten errepublikanismoaren" inspirazio-iturria da, eta elkarbizitzarako gutxieneko eskakizuna da. Aldarrikapen horiek berretsi egiten dute kazetaritza zehaztasunean eta profesionaltasunean oinarritu behar dela. Beraz, hiritar guztien berdintasunaren legezko onespina sustatu behar da inolako salbuespenik gabe, bai eta ikuspegi anitzen eskaintzak legeztatutako kazetaritzaren zehaztasuna ere.

Hori guztiori kontuan hartuta, hona hemen etorkinak eta gutxiengoak komunikabideetan tratatzeko zenbait gomendio:

1. "Etorkin-maila" kanpotik gure gizartean bizitzera etorritakoek atzean uzterik ez duten espetxe ez bihurtzea

Edonora doazela ere, pertsona horiek gainerakoen begiradak sumatzen dituztela diote beti. Komunikabideok ez dezagun presio hori areagotu. Pertsonok hiritarren jarduerako arlo askotan parte hartzen dute, eta ona da euren burua komunikabideetan islatuta ikustea, baina pertsonak direlako, ez, "etorkinak" direlako.

2. Etorkinak euren taldeen ordezkari ez bihurtzea

Pertsona guztien bereizgarritasuna eta banakotasuna errespetatu behar dira, bertakoa izan nahiz etorkina izan. Gainera, pertsonok ez dira eremu geografiko beretik datozenen edo erlijio bera daukatenen "ordezkariak" izan behar. Euren iritziak edo migrazio-ibilbideko bizipenak azaldu daitezke orokortu gabe. Etorkinak bertakoak bezain ugariak dira. Euskal gizartean, hain zuzen ere, erraz-erraz antzematen da hori, nortasun kontzepzioak eta adskripzioak, bertan hitz egindako hizkuntzak, iritzi politikoak eta sinesmen erlijiosoak era guztietakoak direlako. Hori dela eta, zentzugabea izango litzateke bertako kideez "homogeneotasunez" hitz egitea. Beraz, etorkinei ere heterogeneotasun hori aitortu behar diegu.

3. Gertaeren berri ematean, kriminalizazioa ekiditea

Etorkinak edo gutxiengoak delituzko egoeretan inplikaturik daudenean, euren jatorri nazionala, talde etnikoa, sinesmenak, azalaren kolorea edo kultura aipatzen badira, kriminalizatu egiten ditugu. Egiaztatu egin da horren ondorioz iritzi publikoak delituzko jokabideak orokortzen dituela pertsona horien taldekideetarantz. Hori dela eta, estilo-liburuek aspaldidanik adierazten dute zenbait ezaugarri albistea ulertzeko behar-beharrezkoak direnean baino ez direla aipatu behar.

4. Erabilitako terminologiak ez ditu estereotipo negatiboak sendotu behar

Ez da bereizkeria sustatzen duen lengoaiarik erabili behar. Horiek horrela, administrazioak eskatutako baimenik ez dutenak "legez kanpokoak" edo "klandestinoak" direla esateak delituzko jokabideak dakarzkigu gogora eta okerreko estereotipoak indartzen ditu. Horren ondorioz, immigrazioa eta

gutxiengoak delinkuentziarekin lotzen dira. Gauza bera esan daiteke immigrazioa mehatxu moduan aurkezten duten metaforen erabilerari buruz, "uholdeak", "andanak" edo "inbasioa" hitzak erabiltzen dituztelako eta pertsonen joan-etorriak eta trafikoa gauza bera direla adierazten dutelako behin eta berriro. Hori guztiori oso kontuan hartu behar da izenburuak jartzeko orduan.

5. Informazio-iturriak erkatzea eta dibertsifikatzea.

Kazetaritzako kalitate-irizpidez ari gara, baina migrazioari edo etorkinei buruz hitz egitean alde batera uzten da. Horri buruzko azterlanetan, emaitzak oso antzekoak dira, erakundeen iturriak nagusi direlako, etorkinen edo etorkinekin lan egiten duten elkarten iturrien aldean. Komunikabideetako profesionalak erantzukizun zuzena daukate jarrera hori ez sustatzeko orduan, ekoizpen-dinamiken mugak oso ugariak izan arren.

6. Emakumeak, migrazio-proiektuko subjektuak

Emakumeek komunikabideetan duten ikusezintasunari buruzko hausnarke-tak inolako arazorik gabe emakume etorkinei ezarri ahal bazaizkie, komunikabideetako profesionalak bi faktore nagusi eduki beharko dituzte kontuan: oro har, emakumeek eurek ekiten diote migrazio-prozesuari eta, horren ondorioz, zeresan handia daukate bertan. Hala ere, egitate hori ez da inolaz ere agertzen komunikabideetan. Euren irudia, ordea, sarritan agertzen da prostituzioarekin lotuta.

7. Immigrazioa mehatxu ez bihurtzea

Pertsonak pateretan edo kaiukoetan iristen direneko egitate dramatikoak jorratu egin behar badira ere, ezin da izan komunikabideek immigrazioaren inguruan ematen duten funtsezko irudia. Horrez gain, hain egitate dramatikoak inbasioa balira bezala aurkezten dira, oro har gure herrialdera legearen arabera sartzen badira ere, hau da, airez edo lurrez. Tratamendu sentzazionalistak biztanleen %8ren ordezkari-tza desitxuratzen du, herrialde honetako errealitate ekonomiko eta sozialeko zati adierazgarriko protagonistak izan arren. Komunikabideek errealitate horren irudi arazotsua, baztertua, txiroa eta mehatxagarria ematen badute, errealitatea faltsutuko dute eta jarrera xenofoboak sustatuko dituzte bertako biztanleen artean.

8. Eskuin muturraren aurkako militantzia

Elkarbizitza demokratikoaren oinarri diren funtsezko balioak ez datoz bat eskuin muturreko erakundeen jarrera xenofobo eta arrazistekin. Kazetaritzak ezin ditu jarrera politiko horiek inolaz ere onartu, eta ez du sektore horien maltzurkeriarik bizitu behar.

9. Atzerritarrak izan arren, adingabeak adingabe moduan tratatzea

Azken aldi honetan, lagunduta ez datozen adingabe atzerritarren tratamendu mediatikoan, euren atzerritartasuna nabarmentzen da. Joera hori Adingabeen Legearen aurkakoa da, agintariak euren tutoretzapean hartu behar dituztenean ez dutelako adingabeen jatorri nazionala kontuan hartu behar.

10. Immigrazioa joko politiko alderdikariaren arma ez bihurtzea

Erantzukizun nagusia alderdi politikoena bada ere, komunikabideek ez dute horrelako dinamikarik sustatu behar.



Komunikazioa eta garapenerako lankidetza

Javier Pagola Lorente

Komunikazioan gertaturiko aurrerapen teknikoei esker (berehalakoa eta norabide anitzekoa da), mundu bidezkoagoa eraikitzeke aukera berriak sortu dira. Pertsonak eta herriak elkar ezagutu, informazioa eta esperientziak trukatu, eta gatazkak murrizteko eta bakea nahiz justizia lortzeko akordioak egin ditzakegu. Alabaina, gizartea gizatiartu eta ekonomia gobernatuko duten etika eta ekintza politiko unibertsala lortzeko asmoak, merkatua nagusi den sistemaren logikarekin egiten du topo. Desberdintasuna eta bazterketa areagotu egin dira, eta milioika pertsonari eragiten diete, baita beren kideekin komunikatzeko orduan ere.

Gure garaiko kultura nagusiko alderdi kontraesankor batzuek komunikazioa oztopatzen dute. Kosmopolitak gara, baina nortasun zehatzetan hartzen dugu babesa. Gauza publikoak eta komunitarioak atsegin ditugu, baina gure indibidualismoaren eremu pribatuan borrokatzen gara. Gure gizarteak gero eta anitzagoak dira, eta zaila izaten da egia komuna aurkitzea eta irtenbideak adostea. Erritmo historikoa bizkortu egin da, eta gauzak hain azkar gertatzen direnez, ez dugu haietaz gogoeta egiteko denborarik ere. Informazio egokia behar dugu, baina albiste bonbardaketak ez digu hori lortzen laguntzen, eta ezta batzuetan datu okerrak eskaintzen dituzten telebista edo irratiek ere, edota talde mediatikoen oligopolio gero eta handiagoak, eta, are gutxiago, botere ekonomiko eta politikoaren etengabeko manipulazioak.

Garapenerako Komunikazioa ez da soilik eztabaida pizteko edo gaitasunak garatzeko lan metodo bat, edota errealitatea interpretatzeko modu bat; desberdintasunei kontra egin nahi dien kontzientzia bizirik mantentzeko eta pertsona guztien bizitza eta duintasuna, inolako bereizketarik egin gabe, defendatzeko modu bat ere bada.

GGKEek eta Gizarte Mugimenduek ondasun publiko bat sortu nahi dugu: mobilizazio sozialerako ahalmena duen gizarte informatua eta antolatua. Guztien ongia lortzeko, informatzeko eta beren iritzia emateko aukerarik ia ez duten pertsona zein taldeei ahotsa eta partaidetza itzultzeko ahalegin horretan, ezinbestekoa da Hedabideen laguntza. Hedabideetan kezka berberak dituzten profesionalak daude. Beren lana erraztu eta gure adiskidetasuna eskaini nahi diegu.

Justizia eta gizarte aldaketa lortzeko 10 proposamen egiten ditugu:

1. Kazetariaren eginkizuna gogoratu

Kazetaritza "Errealitatea ulertu eta kontatzean" datza, Ryszard Kapuscinskik zioen bezala. Kazetaritza ona intenzionala da. Bill Kovach eta Tom Rosenstielek, "Kezkatutako Kazetariak" mugimendu estatubatuar berritzaileko kideek, zera esan zuten: "Kazetaritzaren helburu nagusia herritarrei libre izateko eta beren burua gobernatzeko behar duten informazioa ematea da".

2. Komunikatzeko, lehenik entzun egin behar da

Pertsonak zein erakundeek "geure gauzak" kontatzeko joera dugu. Sarritan, kazetariak ere beren burua bakarrik hartzen dute kontuan. Nahitaezkoa da herritarrei entzutea, eta haiek esandakoa ulertu dugula eta interpelatuta sentitzen garela jakinaraztea. Baina errealitatea ere entzun behar da. Aktiboki entzun behar da, etengabe jakin-mina erakutsiz, galderak eginez, gauzak aztertuz eta gogoeta eginez. Alabaina, errealitatea entzutea zaila da erredakzio mahaia utzi eta kalera irteten ez bagara, aire zabalean egoitera ausartzen ez bagara.

3. Errealitatearekin zintzoak izaten saiatu

Egia al da hedabideetan azaltzen dena? Ala fabrikatutako errealitate bat da? Luis de Sebastián ekonomialariaren iritziz, egunkarietako eta albiste-gietako lehenengo albistea hau izan beharko litzateke egunero: "Gaur, 25.000 pertsona gosez hilko dira". Pobrezia, desberdintasuna eta sufrimendua ez dira gutxi batzuen arazoak. Gaur egungo munduko kontraesan nagusia dira. Herritar guztiei dagozkien arazoak dira. Baina Mario Benedettik dioen bezala, "Dena begiratzen den minaren araberakoa da".

4. Beldurretik askatu, beldurrari aurre egin

"Beldurraren komunitatean bizi gara", dio Ulrich Beck soziologoak. Egungo gizarteak beldurrak sorrarazten ditu; botereak, aldiz, beldur horiek areagotzen ditu eta segurtasunaren aitzakia erabiliz askatasunak murrizten ditu. Susan Rotker idazle eta kazetariak "beldurraren herritarrak" deskribatzen ditu: jendeak biktima potentzialtzat hartzen du bere burua; ez da fidatzen bere hurkoez, batez ere desberdinak diren pertsonen; bizikidetzat deklaratu gabeko gerratzat hartzen du eta gizartean amorrua eta gatazkakortasuna dira nagusi. Baina ez dago errealitate hori zertan onartu. Kazetariak garen aldetik, komunikazioak gatazkak murrizteko duen botereaz jabetzen lehenak izan

behar gara, eta bizikidetzan on baten adibideak eman behar ditugu, beren hiriaz gozaten duten herritar zoriontsuen adibideak.

5. Desberdintasunari aurre egiteko zerbait egin

Hedabideetan inoiz agertzen ez dena erakutsi behar dugu. Ahaztutako edo kontatu gabeko gauzen berri eman. Zergatiak eta ondorioak aztertu. Jendearen duintasuna agerian utzi. Prozesuak eta testuinguruak islatu. Estereotipoak baztertu. Komunikazioak pobre eta ahulentzat duen balioa kontuan hartu.

6. Hegoaldetik datorren jendea hartu

Etorkinekin loturiko gaiei tratamendu egokia eman behar zaie, estereotipoak saihestuz, inmigrazioaren alderdi positiboak erakutsiz eta erronkei buruz hitz eginez. Baina ez hori bakarrik: gure herrira bizitzera datozen pertsonengandik eta bisitatzen gaituztenengandik ikasi behar dugu. Bereziki, kazetari eta komunikatzaileengandik.

7. Hegoaldeari buruzko informazioa eta irudia zaindu

Sarritan, Iparraldeko hedabideetan Hegoaldeari buruzko albiste hauek bakarrik azaltzen dira: gatazka armatuak, inbasioak eta ekintza terrorista izugarri bortitzak, istripu larriak eta hondamendi naturalak, jaiak edo ohi-tura exotikoak, aurkikuntza arkeologiko edo naturalistikoak, eta leku xar-mangarrietarako bidaiak. Irudi horiek testuingurutik aterata egoten dira, eta salbuespenak, miseria eta ikuskizuna baino ez dute erakusten, hainbat eta hainbat alderdi ahaztuz: eguneroko bizitza; jendeak bere osasuna, hezkuntza eta etxebizitza hobetzeko egiten duen ahalegina; ekoizpen ekonomiko eta artistikoa; ingurumenaren zainketa; eskubide politiko eta sozialen erabilera; bidezko merkataritza; genero berdintasunaren alorreko aurrerapenak; nortasun kulturalaren aldarrikapena; interdependentzia eta erantzukizun bateratua... Horregatik, nahitaezkoa da errealitateari buruzko informazio osatuagoa eta egiazkoagoa ematea.

8. GGKE eta gizarte mugimenduekiko hurbiltasun kritikoa erakutsi

Hedabideak eta Kazetariak zorrotzak izan behar dira Erakundeekin eta Gizarte Mugimenduekin. Batez ere bi gauza eskatu behar zaizkie: Gar-

dentasuna ematen zaizkien baliabideen kudeaketan, eta Profesionaltasuna: mezu argiak; egiazko informazioa, egiaztatua eta ongi tratatua, kalitatezko testu eta irudiekin. Era berean, Erakundeek eta Gizarte Mugimenduek beren mugak aitortu behar dituzte, batez ere Hegoaldeko ezegonkortasun egoerek sortuak direnean, edota bitartekoen urritasunak eraginak (erabaki solidario horren ondorioz). Erakundeak eta Gizarte Mugimenduak albiste eta iritzientzako beste iturri bat izan gaitezke, erredakzioen eskakizunak betez gero. Proposamen neurritsuak ere egin nahi ditugu, aukerak aprobeztatuz, informazio ingurune eta genero bakoitzaren dinamikak eta hizkuntzak kontuan izanik. Gure autonomiari eutsiz, denak berdin tratatuz, Hedabideetako eta Erakundeetako komunikatzaileak anaitu egin gaitezke, gure etengabeko prestakuntzari lagunduz eta Espazio Publikoari zentzu berri bat emanez, Jürgen Habermas eta Hannah Arendtek "Elkartzen eta lotzen gaituena" gisa deskribatzen dutena sortuz.

9. Alfabetatze komunikatibo eta digitalaren alde lan egin

Beren lanbidetik kanpo, zenbait komunikatzailek herritarren kausa eta ekimenei laguntzeko erabiltzen dituzte beren ezagutza eta trebeziak, modu erabat eskuzabalean. Komunikazioak eta Garapenerako Hezkuntzak laguntzeko aukera ematen digu, jarduera eta proiektuetan borondatezko lana eginez, eta sare digitalean antolatutako lanaren bidez geure burua aberastu dezakegu.

10. Herritarren kritikak eta proposamenak onartu

Europako zenbait informazio enpresatan, Irakurlearen edo Entzulearen Defendatzailea izeneko irudia dago. Gizarte Kazetaritzak hedabideen erabiltzaileen itzaropen agenda sortu du, eta herritarrek zenbait talde sozialen interes orokor edo partikularreko gaiei heltzeko eskariak egiten dituzte. Latinoamerikan, zenbait gaiez arduratuta dauden kazetari taldeek Hiritar Kazetaritza izenekoa zabaldu dute, eta Komunikazioko Ikuskaritzak ere sortu dira. Bigarrenek, gai jakinei ematen zaien informazio tratamendua aztertzeaz gain, herritarren kultura sortzeko eta partaidetzaren bidez garapena bultzatzeko duten erantzukizuna bere gain hartzera gonbidatzen dituzte Hedabideak. Iberoamerikan 30 Hedabideen Behatokitik gora daude dagoeneko. GGKEek eta Unibertsitateek sustatzen dituzte, eta, besteak beste, Garapenari edo Pobreziari ematen zaion informazio tratamendua aztertzen dute.



Informazio-iturriak eta kazetaritzaren kalitatea

Txema Ramírez de la Piscina Martínez

Aldaketa-garaia da gurea. Maila guztietan sumatzen den joera da: lan-munduan, akademia-giroetan, gizarte-harremanetan... Aldaketok ziztu bizian datoz. Gaur eta atzo denborako mugarriak baino gehiago dira. Gaur ia ezer ez da atzo bezala. Ezer gutxik irauten du luzaroan. Teknologia berriek den-dena jarri dute hankaz gora. Kazetaritzaren mundua ere zorbio horren baita dago. Izan ere, aditu askok aitortu dute Kazetaritzak eta, bereziki, prentsak bizi duen momentua benetan larria dela. Egunkarien salmentek, esaterako, behera egin dute azken urteotan; planeta osoan gainerra. Urterik urte %1 edo %2 doaz behera. Are gehiago, adituren batek (Jose Luis Mz. Albertos-ek, esaterako) heriotza-data ezarri dio prentsari: 2020. Batek daki zer gerta daitekeen orduan.

Edozein kasutan, krisia agerikoa da. Begi-bistakoak ere dira egoera hori ahalbidetu duten faktoreak. Aipagarrienak, agian, ondorengo hiru:

- **Internet-en hedapena** (sarerako konexioa duten 1.000 milioi pertsonak munduko egunkari guztien %80 kontsulta ditzakete).
- **Doako prentsaren zabalkundea** (Europako zenbait herritan nagusi dira une honetan).
- **Sinesgarritasunaren gainbehera.** Gatazka egoeretan, gerrak justifikatzerako orduan, adibidez, gobernuekiko erakutsi duten mendekotasuna nabarmena izan da. Batek baino gehiago Distortsio Handiko Armak gisara aritu zirela uste du.

Beherako bidea hartu dute batzuek. Beste batzuek, berriz, gorakoa hartu dute. Horra hor, Kazetaritza partehartzaileak bizi duen loraldia. Kazetaritza partehartzailea zer den Dan Gillmor-ek azaldu digu: Kazetaritza partehartzailea (*participatory journalism*) *hiritar baten edo talde baten egintza da, informazioaren bilketa, narrazio, analisi eta hedapen prozesuan funtzio aktiboa betetzen duen jarduera, alegia.* Partehartze horren helburua da ahalik eta jende gehienari informazio independente, zehatza, fidagarria eta garrantzitsua helaraztea.

Testuinguru honetan, azken urteotan sortu diren gizarte-mugimendu berriek zeresan handia dute. Internet sarean topatu dute tranpolin perfektua, probaleku egokia. Kazetaritza partehartzailea euren aliatu naturala da. Dituzten tresna teknologikoak baliatuz, errazago zaie dituzten ideia berri-tzaileak jendearengana helaraztea eta, bidez batez, euren helburuak ere betetzea. Aukera berriak sortzen ari dira. Mugimendu hauek ederki asko jabetu dira horretaz.

Fenomeno berri hauen loraldiak, ordea, ez ditu portaera zaharrak alboratu, inondik inora. Kazetaritza korporatiboak oraindik ere ohiko moldeak maite ditu: informazio-iturri nagusiak oraindik ere "nagusi" izaten jarraitzen dute. Lan-ohikeriek zama handiegia dute oraindik ere kazetarien agendetan. Interes ekonomiko eta ideologikoez arrazoi informatibo eta profesionalen gainetik daude oraindik ere behar baino gehiagotan. Eta hori guztia gutxi balitz, kazetariaren lanbideak inoiz ezagutu duen ezegonkortasun-mailarik gorenera iristen ari da sektoreko sindikatuek ezer gutxi egin duten bitartean.

Zer egin orduan? Nola heldu panorama berri honek dakarzkigun erronka berriei? Kazetaria gaur egun ez da "super-heroi" bat. Ez da hori bere funtzioa. Gainera, berorrek gutxitan hartzen du parte bere enpresako erabaki estrategikoetan. Hala eta guztiz ere, bai uste dugu "zerbait" egin dezakeela. Hona hemen, lau proposamen; egoera berri honen aurrean baseko kazetariari lagungarri gerta dakiokkeen zeregin-multzo apal bat:

- 1. Informazio-iturriak alderatu.** Urrezko araua izan arren, askotan ez da horrelakorik gertatzen. Denbora falta dela medio, behar baino gehiagotan konfiantza larregi ematen zaie berez konfiantza larregi hartzen duten informazio-iturri nagusiei: gobernuei, mega-korporazioei, alderdi politiko garrantzitsuenei... Kalitatezko kazetaritzak zehatza izan behar du. Eta horrek denbora behar du.
- 2. Gizarte-mugimenduei ahotsa eman.** Azkenaldi honetan asko ugaritu dira gizarte-eragileak. Uneoro sortzen dira gizarte-mugimendu berriak. Normalean, helburu zehatz eta argiak dituzte: dela azpiegitura erraldoi baten aurka, dela egitasmo sozial baten alde. Besteetan, helburu estrategikoagoak dituzte: ingurumenaren defentsa, giza-eskubideen alde, hizkuntza-eskubideen alde, sexuen arteko berdintasunaren alde, arrazakeriaren aurka... Zeresan asko duten kolektiboak izan arren, gutxitan agertzen dira masa-hedabideetan. Kazetariaren lana ere bada desoreka hori zuzentzea, Kalitatezko kazetaritzak kolore aniztasunak ere eskertzen duelako.
- 3. Hiritarrak protagonista bihurtu.** Gaur egun bada aldarrikapen komuna planeta osoan: hiritartasuna kontzeptuaren defentsa. Han eta hemen, hiritarrek eta herritarrek protagonista izan nahi dute. Gizarte eragileez harago, berek ere badute zeresana, zer konta gizarte osoari. Inkestetan hiritarroi galdetzen zaigu: zer iritzi duzu honetaz edo horretaz? Gutxitan galdetu zaigu: Eta hiri, nola joan zaik/n istorio

honetan; nola bizi izan duk/n egoera hau? Norberaren esperientzia pertsonalak izugarrizko indarra dauka. Estatistikek diote: "gaur pertsona orok oilasko erdi bana jan du". Estatistikek, ordea, ez dute esaten batzuek oilasko osoa jan duten bitartean, beste batzuk begira egon direla.

4. **Agenda lokalak lehenetsi.** Frogatuta dago: gizartea kohesionatzeko eta hiritarrok zeregin komunitarioetan inplikatzeko orduan, agenda lokalak askoz egokiagoak dira agenda orokorrak baino. Hiritarrok gertuko kontuetan errazago inplikatzeko gara, gurearen aldeko defentsa borrokatzen ari garelako. Masa-hedabide handietan inertiak beti gai orokorren alde egiten du apustu.

Proposamen zehatz eta argiak dira; baita egingarriak ere, gure ustez. Beroriek praktikara eramateak esan nahi du informazio-iturri nagusietatik autonomia gehiago izatea, hiritarroi protagonismo gehiago ematea, kazetari-lanaren alde sortzailea gehiago lantzea; azken batean, kazetaritzaren kalitatea bera ere hobetzea. Horixe da proposamen honen bitartez dugun asmo eta xede bakarra.



Informazio-enpresa eta balio profesionalak

Petxo Idoyaga Arrospide

Informazioaren manipulazioaren gaia oso urrutitik dator. Zoritxarrez, iritzi publikoa engainatzeko gertakariak nahita manipulatzeko joera oso ohikoa da kazetaritzaren historian. Baina, zorionez, paradigma manipulatzaila horren adierazpenei banan-banan aurre egiten dieten deontologia profesionaleko kodeak ere badaude. Kazetaritza ona txarretik bereizten duen profesionaltasunaren lehenengo agindua kode horiek betetzea izan beharko litzateke, eta haiei buruz hitz egitea, haiek gogoratzea edo transmititzea ohitura bilakatu beharko litzateke. Nolanahi ere, kazetaritzak ezagutzen ditu kode horiek. Kodeak ez betetzearen errua ez du haien berri ez izateak, moraltasun profesionalaren faltak baizik.

Orduan, kazetaritza-informazioa zergatik da, neurri handi batean, errealtatearen irudikapen oso desitxuratu bat?

Adibidez, hedabideek immigrazioari buruz ematen diguten informazioa bata bestearen atzetik etorritako "ilegal" andanen kontakizunak izaten dira. Kontakizun horiek eragin nabarmena dute iritzi publikoan: inkesta guztien arabera, benetan daudenak baino askoz etorkin gehiago daudela uste du jendeak, eta askoren ustez, lan kontratua dutenak bakarrik onar daitezke.

Zentzugabea izango litzateke pentsatzea munduko kazetari gehienak ohetik altxatu bezain laster iritzi publikoa engainatzeko informazioa nola manipulatatu hausnartzen hasten direla. Burugabea izango litzateke, halaber, pentsatzea munduko kazetari gehienek beren nagusien beldur direlako nahita aktibatzen dutela manipulazioaren paradigma hori. Gainera, hori egitea erabat disfuntzionala izango litzateke egunkariaren edo irrati eta telebistako albigegiaren ekoizpenarentzat; izan ere, informazioa lortzeko baliabideak (iturriak), informazioa lantzeko irizpideak eta informazio hori banatzeko edo zabaltzeko baldintzak ez lirateke behar bezain egonkorrak izango.

Alabaina, immigrazioari buruzko kazetaritza-kontakizuna –edo beste gai askori buruzkoa– manipulazio kontziente eta antolatu baten emaitza ez izateak, *nahi gabeko desitxuratze*¹ bat baizik, ez du gertakarien itxuraldatze karga arintzen, eta ezta kontakizunak iritzi publikoan duen eragina ere.

¹ Informazioaren desitxuratze edo manipulazio inkontzientea (*unwitting bias*) albisteen ekoizpen prozesuei (*newsmaking*) buruzko hainbat azterketa eta ikerketatan jorratzen da. Gaiari buruzko azalpen on baterako, ikus M.Wolf (1987) *Investigación de la Comunicación de Masas*, Editorial Ariel, Bartzelona.

Eta desitxuratzea informazioaren ekoizpen prozesuan zehar egiten denez, bere zergatiak prozesu horren bi oinarrietan egon behar dira nahitaez: informazio enpresaren antolamendu eta baldintzetan, alde batetik, eta kazetaritza-profesionaltasunarekin loturiko balioetan, bestetik.

Alabaina, manipulazio kontzientearen paradigma kode deontologikoaren bidez borrokatu beharreko perbertsiotzat har daitekeen bitartean, *nahi gabeko desitxuratzea* ez da desitxuratzetaz ere hartzen; informazio-enpresaren izaerarekin loturiko gauza normaltzat jotzen da. Are gehiago: ekoizpen premiak direla eta, hedabideak alde batera uzten ari dira kode deontologiko klasikoenetariko batzuk, eta horrela jokatzea ez da jada anti-profesionaltzat hartzen; batzuetan, gauza oso profesionaltzat ere jotzen da.

Beraz, kazetaritzako zenbait praktika profesionalen eta ekoizpen ohitura desitxuratzailen saihestezintasuna ez da ontzat eman behar, eta are gutxiago praktika horien normaltasuna. Arazoek konponbide zaila eta konplexua duten kasuetan ere, ezinbestekoa da, gutxienez, arazo horietaz jabetzea.

Tradizionalki, profesionaltasuna (kazetaritza onaren baliokidea), "zerbitzu publiko" gisa hartu izan da, beste edozein ideia ginetik.

Kazetaritza profesionaltasunari buruzko irizpide horrek askatasunen aldeko eta bidegabekeriaren kontrako jarrera eta ekintza goresgarriak sorrarazi ditu. Baina aldi berean, terminoaren esanahirik gogorrean, profesionaltasuna "ideologia" bat da; egiten jakite profesionaltzat jotzen dena, egiaz, botere taldeen interes edo doktrinen aldeko jarrera bat da.

Estatua edo Merkatua albisteetan gertaera natural (eta, ondorioz, eztabaidaezin) baten modura azaltzeko edota informazio kontakizuna kutsatzeko -gai polemiko batekiko hedabideak duen ildo editoriala gizarte osoaren iritzi edo jarrera bat balitz bezala azalduz-, ez da asmo gaiztoko planik behar. Hori ahalbidetzen duten tresnak, erredakzio bakoitzean sintaxiari, erretorikari edo albistearen balioari buruz dauden kazetaritza-profesionaltasuneko irizpideen zati dira.

Hedabide bakoitzaren estilo liburuak irizpide profesionalen modura ezkutatzen diren goi mailako erabaki politiko eta kulturalen adibide bikaina dira. Beste horrenbeste gertatzen da hedabide batean albistea zer den eta zer ez den erabakitzen duten irizpideekin, edo albistetaz jotzen dena garrantziaren arabera sailkatzeko erabiltzen diren irizpideekin.

Ideologia profesionala hierarkikoki sortzen da, goitik beherako ordenan; kanpoko botere sozialetatik eta enpresako jabe edo zuzendaritzatik, informazio erredakziora. Erredakzio barruan, ideologia langileek zabaltzen dute, atal bakoitzeko zuzendaritzek; izan ere, horrela ideologia ekoizpen irizpide orokor bilaka daiteke (eta bilakatzen da). Ondorioz, pertsona gazte bat hedabide batean lanean hasten denean, enpresako balioak eta arauak egiten jakite profesionala balira bezala bereganatzen ditu, eta inori ez zaio arraroa iruditzen pluraltasunik ez egoterik.

Argi dago informazioa ekoizteko, albisteak aukeratzeko eta tratatzeko irizpideak behar direla, estilo liburuekin batera. Arazoa irizpide horiek ildo profesional eztabaidaekin bihurtzen direnean sortzen da.

“Merkatuaren eskakizunak” eta “enpresaren ekoizpen premiak” betetzea dira balio profesionalen irizpide nagusiak.

Irizpide horiek betidanik baldintzatu dituzte kazetaritzako balio profesionalak. Gertaera bat albiste bihurtzeko aukera enpresak bere ekoizpen prozesuan gertaera hori sartzeko dauden aukeren menpe egon da beti. Hala ere, tradizionalki, kazetaritzaren ideologia profesionalak garrantziaren eta iritzi publikoaren interesarekin loturiko irizpide objektiboen emaitza gisa aurkeztu du albisteen aukeraketa. Berria dena zera da: irizpide horiek orain erabakigarriak direla kazetaritza ona egiteko balio profesionala zer den zehazteko orduan.

Ikuskizunaren paradigmak informazioa erabat menderatu du, eta kazetaritzak gertakariak eta beren testuinguru soziala ulertzen lagundu behar duenaren ideia galtzen ari da. Publikoa ez aspertzeko, gertakari morbosoa eta korapilatsuen berri eman eta bizitza sozial edo politikoko alderdi gatazka-tsua nabarmendu behar direlako ideia oso zabalduta dago kazetaritzan.

Telebistaren eragina ukaezina da gai honi dagokionean. Alabaina, erreferentziakotzat jotzen den prentsa ospetsuenak ere, xede publikotzat ondo informatutako herritarrak omen dituenak, eta baita komunikazio instituzionalizatuaren alternatibak diren hedabideek ere, albisteak aukeratu eta tratatzeko orduan ikusgarritasuna ezarri dute irizpide nagusitzat. “Hori da ikusleak erakartzen eta bereganatzen dituen”, pentsatzen da, eta profesionalak abiapuntuko baliotzat jotzen dute kazetaritzak berak publikoaren eskakizunak deitzen dituen horri erantzuten jakitea, salmentak hobetzearekin batera.

Kazetaritzan nagusi den ikuskizunaren paradigma horrek ez du berez garrantzirik ez duten albisteak aukeratu eta nabarmentzea soilik barne hartzen; eta ez da albiste garrantzitsuei ikuskizun tratamendua ematera ere mugatzen, tratu horrek azalekoa azpimarratzen eta funtsezkoa ezkutatzen duen arren. Egia esan, paradigma hori ohiko informazio guztiaren *modus operandia* bihurtu da, eta bizitza politikoa, ekonomikoa zein soziala ukitzen ditu.

Deontologia profesionalaren esparruko kontuak ekoizpen arazo huts edo ohikeria profesionaltzat hartzen dira, eta kazetariak ez dira konturatzen horien izenean deontologiaren kodeak hausten ari direla.

Adibide bat albisteen aukeraketa eta eragiketa hori egiteko kazetariak informazio iturriekiko duen harremana da. Ondo egite profesionalaren irizpideek eta kazetaritza deontologiari buruzko erreferentzia sendoenek betidanik printzipio bat azpimarratu dute: auzi polemikoei buruzko albistee-tan, gertakarien egiazkotasuna beste iturri batzuetan egiaztatu behar da.

Gaur egun, aipatutako printzipioa deontologiaren eremutik eta harekin loturiko profesionaltasunetik kanpo geratu da; jarrera hori justifikatzeko, enpresak denbora edo baliabide nahikorik ez duela esan ohi du, eta horrela jokatu gero, kazetaritza ez litzatekeela produktiboa izango.

Gutxienez, arazo baten aurrean gaudela antzematen duten kazetariak, albistearen barruan kontsultatutako informazio iturria aipatzen dute berariaz; alderdietako bat aipatzeak, ordea, ez du saihesten albistearen ikuspuntua alderdi horrena bakarrik izatea! Eta dinamika horretan, gainera, iturri instituzionalizatuak, azkenean, iturri bakarrak bihurtzen dira.

Hori oso funtzionala da informazio enpresaren ekoizpen irizpideentzat: iturri horiek informazio gehiago ematen dute, eta, dudarik gabe, gainerako hedabideek aipatzen dituzten berberak izango dira; gainera, emandako albistea okerra izanez gero, hedabidea erantzukizunetik salbuetsita geratzen da; eta, azkenik, iturri horien erabilera pribilegiatuari esker, kazetaritzak elite sozialekiko harremanak izaten ditu. Baina horren ondorioz, kazetaritza bere iturrien menpe eta haien zerbitzura geratzen da, eta iturri instituzionalek monopolio egoera bat sortzen dute. Bi alderdi horiek izutu egin beharko lukete kazetaritza-profesionaltasuna.

Horrez gain, botere ekonomiko, politiko edo sozial nahikoa duten guneak modu ikusgarrian informazioa ekoizteko zentro propioak geratzen ari dira,

eta manipulaturako informazio hori gero kazetaritza-enpresei ematen diete. Komunikazio kabineteak eta irudi taldeak alderdi estrategiko garrantzitsuak bihurtu dira botere gune horientzat.

Ideologia profesionalak enpresarentzat abantaila gisa edo gure garaiaren adierazgarri gisa aurkezten du fenomeno hori (berriro ere, gauza naturala izango balitz bezala). Hala ere, fenomenoak kazetaritzaren hiru ikuspegi autoerreferentzial klasikoen krisia islatzen du:

- Kazetaritza politika edo ekonomia kontrolatzen duen "laugarren boterea" denaren ikuspegia; ikuspegi horri ezin zaio eutsi, eremu horietako botere guneak baitira, hain zuzen ere, hedabideen agenda erabakitzen dutenak eta kontakizunak idazten dituztenak.
- Kazetariak "ekoizlekideak" direlako ikuspegia (adibidez, politikari buruz hitz egin ez ezik, politika sortzen ere laguntzen dute); ikuspegi hori zuzeneko lerrokaduretan bakarrik gertatzen da, eta botere-gune jakin baten zerbitzura; gainerakoan, kazetaritza kontakizuna "...ren zerbitzura dagoen propaganda" da.
- Kazetariak gertakarien eta erabakien arteko "bitartekariak" direlako ikuspegia; bigarren mailako eginkizun bat bitartekaritza lan hori ordezkatzeko ari da: lehendik aukeratutakoa aukeratu eta lehendik idatzitakoa berridatzi (ebaki, itsatsi eta aurrez zehazturiko tartean sartzearen diktaduraren pean).

Beharbada, ñabardura batzuk egin behar dira. Aipaturakoak garatzen ari diren dinamikak dira, itxita, eratuta, finkatuta dauden egoerak baino gehiago. Baina dinamika oso indartsuak dira, eta, gainera, kazetari gutxi egiten du haien inguruko gogoetarik, eta oraindik gutxiago dira kontra egiten dietenak.

Kazetaritzaren lanbidean arraila handiak sortzen eta zabaltzen ari dira. Hierarkiak betidanik egon dira. Alabaina, desberdintasunak izugarri handitzen ari dira, hainbeste, non egun zaila den kazetaritza lanbidetzat hartzea.

Diktadura frankistaren amaieran, partaidetzarako gogo biziak gizarte osoa astindu zuen, kazetaritzaren mundua barne. Hierarkien arteko mugak askoz lausoagoak ziren, askatasun profesionala askoz handiagoa zen, berrikuntza

balio profesionaltzat jotzen zen eta kazetariak benetako ahalmena zuten hedabideko ildo editorialean esku hartzeko. Gizarteak ez badu garai hartan izandako protagonismoa berreskuratzen, ia ezinezkoa izango da kazetari-tzako sormenaren eta askatasun profesionalaren antzeko suspertze bat gertatzea.

Baina okerrena zera da, dagoeneko ez dela inolako aztarnarik geratzen esperientzia hartatik. Informazio enpresetako plantillen egiturak eta egin-kizunen banaketak gero eta antza handiagoa dute ohiko industria edo zer-bitzu pribatu batekoekin. Ez dute inolako zerikusirik diktaduraren azken urteetan eta demokraziaren hasieran sortutako ereduarekin; ezta gaur egun irakaskuntzan dagoenarekin ere, edota osasunaren arloan dagoenare-kin, bere mugak alde batera utzita.

Kazetaritza zentzua galtzen ari da lanbide gisa, dagoeneko galdu ez badu. Enpresa berean lan egiteak ez du esan nahi langile guztiek eginkizun ber-bera dutenik. Langileen artean sortzen ari diren desberdintasunak kazeta-ritzaren bereizgarriak suntsitzen ari dira, dagoeneko ez badituzte erabat suntsitu.

Desberdintasun hierarkikoak oso zabaldua daude egunkariaren edo irrati eta telebistako albistegiaren ekoizpenarekin loturiko eginkizunetan; gauza bera gertatzen da informazioari eman beharreko tratamenduari buruzko erabaki-hartzeetan, edo informazio horren ezagutza mailan. Barne elitis-moa oso nabaria da, eta informazioaren esanahi profesionala, gero eta gehiago, honako hau da: enpresaren inguruko mundua eta enpresak mundu horretan duen egitekoa aitortu eta balioesteko eliteak erabiltzen duen ikuspuntua bereganatzeko gaitasuna, ikuspuntu hori zirkular edo oharren bidez ezarri beharrik gabe.

Katearen beheko muturrean enplegu kolokatasuna eta lanaldi partzialeko kontratuak daude; horien presentzia proportzionala adierazgarria eta gero eta handiagoa da. Kasu horietan, profesionalismoaren kultura korporatibo-arekiko identifikazio maila ez da kezkatzeko arrazoitzat ere jotzen. Orokorrean, aipatutako kazetarien zereginak mekanikoak izaten dira eta ez dute sormenik eskatzen; pertsona horien etorkizuna ez da enpresaren proiektu profesionalarekin lotuta ikusten.

Auzi horietako asko, lan merkatuko beste sektore batzuetan bezala, ukatu-tako lan eskubideekin eta soldata bidegabekeriekin daude loturik. Kasu

horietan guztietan, aldaketak eskatzeko lehenengo arrazoia justizia da. Alabaina, kazetaritzari eta zerbitzu publiko gisa duen egitekoari buruzko gogoetak oraindik garrantzi handiagoa ematen dio gai honi.

Kontua ez da kazetaritzaren profesionalismoa eta korporatibismoa orbanik gabeko bertute gisa aldarrikatzea. Baina gauza bat argi esan behar da: kazetaritzak agente sozial eta zerbitzu publiko gisa duen eginkizunaren erabilera arduratsua ezin da bermatu erredakzioetan erabaki-ahalmena duten elite txikiek inposatutako arrail korporatiboak badaude, eta ezta informazio jardueraren oinarria lanesku ezegonkorra bada ere.

Eta ustiapen kostuaren emaitzetan horrek dibidenduak sortzen baditu ere, hori gaurko ogia eta biharko gosea izan daitekeela gogoratu behar da. Kazetaritza konpromiso pertsonal handia eskatzen duen lanbidea da, eta suspergarririk ez edukitzeak, lizentziatu ondoren urtebetez edo biz lanean jardun duen norbaiten kontratua eten eta lortutako eskarmentua alferrik galtzeko joerarekin batera, gogoetarako arrazoiak izan beharko lirateke, baita ikuspuntu enpresarialetik ere. Ikuspuntu profesionaletik, bederen, izan beharko lirateke.

Egoera hori konpondu gabe, ezinezkoa izango da kazetaritzaren gabezia profesionalak edo informazioan nahi gabe egindako desitxuratzeak zuzentzea.



Webgrafia

IPPAI (Prebentziorako Kazetaritzaren eta Nazioarteko Azterketaren Institutua) www.periodismopreventivo.org. Kazetariak, nazioarteko azterlariak eta unibertsitatearekin lotutako pertsonak osatzen dute elkarteak. Nazioarteko krisiei eta gatazkei buruzko informazioa modu berritzailean egitea, antolatzea eta zabaltzea proposatzen dute.

Alertnet www.alertnet.org. Laguntza humanitarioari eta nazioarteko krisi-egoerei buruzko web orri oso-oso da. Reutersek sortutako informazio-sarea da, alegia.

Reliefweb www.reliefweb.int. Nazio Batuek babestutako komunikazio-ataria da, eta larrialdi humanitarioei zein hondamendiei buruzko agiriak eskaintzen ditu. Edukiak egunero berrikusi eta eguneratu egiten dituzte.

HPN (Humanitarian Practice Network) www.odihpn.org. Londresko Overseas Development Instituteren web orria da. Honako hauxe eskaintzen du: informazio ugaria bezain zabala, agiriak, estekak, eztabidak...

ALNAP (Active Learning Network for Accountability and Performance in Humanitarian Action) www.alnap.org. Laguntza humanitarioaren ebaluazioei, txostenei, argitalpenei, prestakuntza-materialei eta beste baliabide batzuei buruzko datu-basea da.

CICR (Gurutzeko Gorriko Nazioarteko Batzordea) www.cicr.org. Krisi humanitarioei eta zenbait baliabideri buruzko informazioa eskaintzen du.

ELDIS www.eldis.org. Sussexeko IDSkok garapen-gaiei buruzko informazio-zerbitzua da. Honako hauxe eskaintzen du: milaka on line artikulua eta txostenak, erakundeetarako estekak, gaikako berripaperak...

Indymedia www.indymedia.org. Komunikabideetako erakundeak eta kazetari independenteak sortutako taldea da, eta erakundekoa ez den estaldura eskaintzen du.

Iberoamerikako Kazetaritza Berria Fundazioa www.fnpi.org. Kazetarien garapen profesionalerako nazioarteko zentroa da. Betearazi eta babesten dituen proiektuak berrikuntza sustatzen dute eta komunikabideak hobetzen dituzte Amerika Latinoko herrialdeetan.

Amerika Latinoa. Europako ataria www.red-redial.net. European Amerika Latinoaren inguruan garatutako jarduera zientifiko eta akademikoaren berri ematen duen ataria da.

Choike www.choike.org. Hegoaldeko GKE-ek eta euren proiektuek Interneten daukaten agerpena hobetzeko eta sustatzeko ataria da.

Komunikazio Ekimena www.comminit.com. The Communication Initiativek Amerika Latinoko eskualde-garapenerako abian jarritako lehen prozesua da. Izan ere, garapen-gaietan aitzindariak diren erakundeen arteko batasuna da, eta baliabideak inbertitzea dauka helburu, komunikazioaren jarduna, pentsaera eta politikak aldatzeko asmoz.

Public Integrity www.publicintegrity.org. International Consortium of Investigative Journalisten web gunea da. Izan ere, munduko erreferenteak dira kazetaritza-arloko ikerketan eta etikan. Besteak beste, zenbait gatazkari buruzko bilduma luzeak eskaintzen ditu.

FAIR www.fair.org. Komunikabideen behatokia da, eta ohiko komunikabideen ikuspegi zatikatuari eta informazio-zentsurari buruzko kritika dokumentatuak eskaintzen ditu.

Adital www.adital.com.br. Albiste-agentzia da, eta agenda latinoamerikarra zabaltzen du nazioarteko komunikabideen artean, gizarte zibilaren ekimenen berri emateko asmoz.

ANAIA (Albisteen eta Informazio Alternatiboaren Agentzia) <http://ania.urcm.net/>. Madrilera irratia libreen proposamena da, eta gizarte antolatua dauka helburu. Horiek horrela, informazioa garatzeko daukan gaitasuna garatuko du, eta hiritarrei igorriko die beste era bateko sistemen bitartez.

Inter Press Service www.ipsnews.net. Herrialde guztiei buruzko informazioa eskaintzen duen web gunea da. Batez ere, honako gaiak ematen die lehentasuna: hegoaldeko herrialdeei buruzko informazioa, garapena eta globalizazioa.

ISN (International Relations and Security Network) www.isn.ethz.ch. Doako zerbitzu publikoa da, eta zenbait baliabide eskaintzen ditu, nazioarteko harremanetako eta mundu zabaleko segurtasuneko profesionalen artean informazioa trukatzeko. Ikerketa-zentroetako, institutu akademikoetako, komunikabideetako, sektore pribatuko, gobernu-erakundeetako eta

gobernuz kanpoko erakundeetako adituen ezagutzetan oinarrituta, sare orokorra sortzea dauka helburu nagusi.

One World www.oneworld.net. Justizia sozialaren alde lan egiten duten 1.250etik gora erakunderen erkidegoa da. Giza eskubideekin eta garapen iraunkorarekin zerikusia daukaten informazioa eskaintzen dute.

Komunikazioa eta hiritartasuna http://movimientos.org/foro_comunicacion/. Komunikazioaren zenbait alderdi jorratzen dituen web orria da: komunikazio alternatiboa, komunikazio soziala, adierazpen-askatasuna...

Diagonal www.diagonalperiodico.net. Hamabost egunean behin argitaratzen den egunkaria da, batzarrean antolatuta dago eta gizarte-mugimenduei hitza ematea eta komunikabide handiek isilarazitako ikuspegiak agerian uztea dauka helburu nagusi.

Power and Interest News Report www.pinr.com. Erakunde independentea da, eta inteligentzia-zerbitzuen informazio publikoa erabiltzen du nazioarteko harremanen testuinguruko gatazkei buruzko azterketak eskaintzeko.

Nodo50 www.nodo50.org/. Kontrainformazio telematikoko proiektu autonomoa da, eta gizarte-mugimenduak dauzka helburu. Batzar independenteak infomatika eta komunikazio arloko zerbitzuak eskaintzen dizkie pertsoneri, taldeei eta erakundeei. Horrez gain, esparru politiko zabaleko ahots aurkariak eta alternatiboak bateratzen dituen Interneteko zerbitzaria ere bada.

Infoekologia www.infoecologia.com/. Erreferentziako komunikazio-plataforma da ekologiarekin eta ingurumenarekin zerikusia daukaten gaietan eta albisteetan. Gainera, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukera zabalak erabili nahi ditu, planetako edozein lekutara ekologiari eta ingurumenari buruzko albisteak eraman ahal izateko.

Amerika Latinoko Informazio Agentzia <http://alainet.org>. Honako arlo hauetan konpromisoa hartu duen komunikazio-erakundea da: giza eskubideen erabateko indarraldia, genero-berdintasuna eta hiritarren partaidetza Amerika Latinoko garapenean eta zeregin publikoan. Komunikazioaren demokratizazioaren alde lan egiten du, bizitza demokratikorako eta justizia sozialerako oinarritzko baldintza da-eta.

E-leusin (Emakumeek sarean duten hiria) www.e-leusin.net/. Lanbide-jatorri desberdineko (hezkuntzako, osasuneko, kazetaritzako, zuzenbide-

ko, komunikazioko eta ikus-entzunezkoetako) 5 emakumek eratutako enpresa da, eta informazioaren gizartea sustatzea dauka helburu. Zerbitzu ugari eskaintzen ditu: prestakuntza, aholkularitza, ikus-entzunezkoen eta material didaktikoen ekoizpena eta diseinua, ekitaldien antolaketa...

Creatividad Feminista www.creatividadfeminista.org. Era guztietako edukiak dituen aldizkari feminista mexikarra da.

Feminist Majority www.feministcampus.org. Estatu Batuetako web gunea da, eta emakumeen giza eskubideen inguruko aktibismoari buruzko albisteak eskaintzen ditu.

Isis Internacional www.isis.cl/. Emakumeen mugimenduaren ondorioz sortutako Informazio eta Komunikazio Zerbitzua da, eta informazioaren zein komunikazioaren teknologien erabileran da aditua. Honako hauxe eskaintzen du: dokumentazio-zentroa, hitzaldien zerrenda, berripaper elektronikoak eta argitalpenak.

Mujeres en Red egunkari feminista www.mujeresenred.net/. Gaur egun, atari honetan, bost mila inguru emakumek, banan-banan edo taldean, informazioa trukatu eta harremanak ezartzen dituzte etengabe, munduko emakumeentzako komunikazio-gunea sortzeko asmoz.

Genero Ikuspegia kontuan hartzen duten Emakume Kazetarien Nazioarteko Sarea. Emakumeentzako Komunikazioa eta Informazioa www.cimac.org.mx/. Multimediako instituzioa da, eta gaur egun emakumeek komunikabideetan daukaten egoerari buruzko ikuspegi berria sustatzen du. Ikuspegi horrek, gainera, berdintasunaren, justizia sozialaren eta demokraziaren printzipioekin dauka zerikusia.

Canal Solidario www.canalsolidario.org. Komunikazio-proiektua da, eta albisteak, zerbitzuak eta baliabideak eskaintzen ditu elkartasunari, lankidetzari, bakeari, giza eskubideei eta gizarterapenari buruz.

XenoMedia www.xmbcn.orgn. Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta aniztasunak komunikabideetan daukan ordezkartza aztertzen du. Mugak gunearekin batera, Aniztasunaren Behatokiari eusten dio, eta, bertan, komunikabideen eta, batez ere, prentsaren zereginaren jarraipena egiten dute egunero.

MUGAK (SOS Arrazakeriaren Ikerketa eta Dokumentazio Gunea immigrazioari, arrazakeriari eta xenofobiari buruz) www.mugak.eu/ gunea/.

1997. urtetik, Mugak aldizkaria argitaratzen dute hiru hilean behin. Aniztasunaren Behatokian, hain zuzen ere, komunikabideen eta, batez ere, prentsaren zereginaren jarraipena egiten dute egunero. Zenbait eus-karritako dokumentazio ugari biltzen dituen datu-basea eskaintzen du: liburuak, aldizkariak, agiri grisak, bideoak...

Periodistas-es www.periodistas-es.org. Rafael Jiménez Claudinek, Mugarik gabeko Kazetariak erakundeko idazkari nagusiak, kazetariarentzat argitaratutako ataria da. Kazetarien adierazpen-askatasunarekin, prentsa-askatasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia daukaten gaiei ematen die lehentasuna.

John Pilger www.johnpilger.com. Interneteko gune honetan, Australiako John Pilgerren kazetaritza-lanean sakondu daiteke, zintzotasunaren eta bidegabekeriaren salaketaren adierazgarri da-eta.

Tom Dispatch www.tomdispatch.com. Tom Engelhardtek bildutako albiste-en zerbitzua da. Nazioarteko egoerari buruzko informazio ugari eskaintzen du ikuspegi kritiko bezain zehatzetik, eta "ohiko komunikabideentzako antidotoa" dela dio.

Hegoa Hiztegia <http://dicc.hegoa.efaber.net>. Ekintza Humanitarioaren eta Garapenerako Lankidetzaren Hiztegia da, eta Karlos Pérez de Armiñok koordinatzen du.



Kolaboratzaileen aipamena

Natividad Abril Vargas Informazio Zientzian Doktorea da eta UPV/EHUko irakaslea.

Iñaki Azkarraga Ripoll Ekologistak Martxan-eko Komunikazio Arduraduna.

Petxo Idoyaga Arrospe UPV/EHUko Katedraduna da Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitatean eta UPV/EHUko irakaslea.

Peio Marín Aierbe Mugak aldizkariko Zuzendaria da eta Mugak, SOS Arrazakeriaren Ikerketa eta Dokumentazio guneko Koordinatzailea.

Javier Pagola Lorente kazetaria da eta Nafarroako Medicus Mundi-ko Komunikazio Arduraduna.

Víctor Pozas Pardo Informazio Zientzian Doktorea da eta UPV/EHUko irakaslea.

Txema Ramírez de la Piscina Martínez Informazio Zientzian Doktorea da eta UPV/EHUko irakaslea.

Isabel Suárez García Lizentziatua da Informazioaren Zientzian. Masterra Nazioarteko Lankidetzan.